

Oporretara goaz.
Abenduaren 16an
gure hurrengo
zenbakia



Sakana Lanbide Heziketa institutua
ikasketa-zerbitzu sariketan
finalista izan da. Estatuko 171
proiektuen artean 17. izan da



Sakanerria >> 9

GUaiXE.eUS



SAKANAKO ASTEKARIA • 2016ko abenduak 2, ostirala • 2. aroa • 577. zenbakia

Euskararen beste egun bat

Irurtzango Euskal Ekitaldiak
Pirritx, Porrotx eta Marimototsek
abiaraziko dituzte bihar

Altsasun bigarren urtez ospatuko
da abenduaren 3a. 11:00etatik
ekitaldiak kultur gune parean

Mintzakide: euskara ikasten ari
direnak edo "askatu" nahi dute-
nek praktikatzeko >>>5/7/16

Galdeketaren poza >>7



Herri baten erantzuna >>9



Turismo
jasangarriko
esperientzietatik
ikasten >>>10



Altsasuko
memoriak
herriko artisten
lanen bidez >>>15



Trasteandoren
xarmadun
elkartasun
kontzertua >>>15



Sakanako kirolari onenak
aukeratuta daude >>>11

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Ekhi

13 urte beteko dituzu!! ZORIONAK potxolo!! Orain arte bezain alaia izan. Infinito muxu. Etxekoan partez.

Haitz Lazkoz Ginea

ZORIONAK ederra!! Astehenean 4 urte beteko dituzu! Egun ona pasa eta muxu pila bat familia guztiaren partez.

Iruene

ZORIONAK Iruene etxekoan partez!

Zorionak Izas, segi zaren bezela izaten.

Egun polita pasa ezazu zure egunean. Muxu eta besarkada haundi bat etxekoan partez

Euskara

Betidanik ta betirako.

Abenduak

2-15

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Buster Shuffle eta Zintz. Abenduaren 2an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko gaztetxean. **Elkartasun kontzertua.**

Gaztelu otxotea. Abenduaren 3an, larunbatean, 13:00etan Irurtzungo elizan.

Etxarri Aranazko abesbatza. Abenduaren 3an, larunbatean, 13:00etan Lizarragako elizan.

Erkudengo Ama abesbatza. Abenduaren 3an, larunbatean, 13:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Paz de Ziganda helduen abesbatza. Abenduaren 3an, larunbatean, 13:00etan Olatzagutiko Kamiogaina jubilatuta elkartean.

Etxe. Abenduaren 9an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Barandi tabernan.

Txalainak. Abenduaren 9an, ostiralean, 23:00etan Irurtzungo Pikuxar tabernan. **Aizpea euskaltzaleen topagunea.**

Kaotiko eta Sofokaos. Abenduaren 10an, larunbatean, 23:00etan Bakaikuko elkartean.

Cantos con encanto. Abenduaren 10ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Trasteando.**

Antzerkia

Heroiak. Abenduaren 3an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Txalo producciones.**

Chef chof. Abenduaren 14an, asteazkenean, 11:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Trokolo teatro.**

Pailazoak

Tipi-tapa, Korrika! Abenduaren 3an, larunbatean, 17:00etan Irurtzungo Kioldegian. **Pirritx, Porrotx eta Marimotots.**

Ikuskizuna

Euskaraz jolastu. Abenduaren 3an, larunbatean, 11:00etan Altsasuko lortia kultur gune parean (euriarekin frontoian).

Proiektzioak

Proiektzioa eta taloa. Abenduaren 3an, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Dokumentalak

Just people. Abenduaren 2an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Ondoren Greziako errefuxiatu eremuetan laguntzen egon diren sakandarren solasaldia.

Gutik zura. Abenduaren 3an,

larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Zinema

Lolo. Abenduaren 2an, ostiralean, 21:45ean eta abenduaren 4an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

La chica del tren. Abenduaren 2an, ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 4an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Zikoinak. Abenduaren 4an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Lagundu, arraina naiz. Abenduaren 4an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Un monstruo viene a verme. Abenduaren 8an, ostegunean, 19:00etan, abenduaren 9n ostiralean, 22:00etan eta abenduaren 11n, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Peter y el dragon. Abenduaren 11n, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Que dios nos perdona. Abenduaren 15ean, ostegunean, 19:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Donostia-Pasaia. Abenduaren 11n, igandean, 7:30ean Irurtzundik abiatuko da autobusa herriz herri. **Sakanako Mendizaleak.**

Lizarrusti-Alleko-Putterra-Lizarrusti. Abenduaren 11n, domekan, 8:00etan Altsasuko Mendigoizaleen egoitzatik.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

Bizikleta irteerak

Opakua (69 Km). Abenduak 4an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Irteerak

Uraren bidaia. Atarrabia-Mendillorri. Abenduaren 6an, asteartean, 10:00etan Irurtzungo autobus geltokitik. **Aizpea euskaltzaleen topagunea.**

Erakusketak

Oroimenart. Abenduaren 2tik 18ra astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Altsasu Memoria.**

Hitzaldiak

Hatzak estuturik. Abenduaren 2an, ostiralean, 20:00etan, Lakuntzako Kultur Etxean. Hizlaria: Gorka Karapeto. **Zabalarte Mendi Elkarte.**

Dementia duten pertsonen autonomia hobetzeko laguntza produktua, etxeko egokitzapenak eta moldaketak. Abenduaren 13an, asteartean, 18:00etan Altsasuko jubilatuta elkartean. Hizlaria: Raquel Guerrero (okupazio terapeuta). **Josefina Arregi klinika.**

Hizketaldiak

Ez naiz biktima, berriz jaio naiz. Abenduaren 15ean, ostegunean, 12:00etatik 13:30era eta 15:15etik 17:15era lortia kultur gunean.

Bertsolaritza

Oihana Iguaran eta Eneko Lazkoz. Abenduaren 10ean, larunbatean, 21:30ean Irurtzungo Iratxo elkartean. **Aizpea euskaltzaleen topagunea.**

Literatura

Esan eta egin. Abenduaren 15ean,

ostegunean, 10:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Alex Sardui idazlearekin topaketa.**

Iazko hezurak (Unai Elorriaga).

Abenduaren 15ean, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Irakurle Taldea.**

Tailerrak

Ile-apainketa+makillaje. Abenduaren 2an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Graffiti. Abenduaren 8tik 10era, ostegunetik larunbatera, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Escape room. Abenduaren 9an, ostiralean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Herri galdeketa Arbizon 2017an?

Abenduaren 2an, ostiralean, 19:00etan Arbizuko udaletxeko batzar aretoan. Herri baztarrak. **Arbizuko Gure Esku Dago.**

Eguberri zuhaitzaren piztea.

Abenduaren 2an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Foru plazan. ADE eta Xurru.

Euskararen eguna. Erakunde ekitaldia.

Abenduaren 3an, larunbatean, 12:30ean Altsasuko lortia kultur gune parean (euriarekin frontoian).

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Abenduaren 2an eta 9an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Abenduaren 4an eta 11n, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.

Abenduaren 7an eta 14an, asteazkenean, 20:00etan Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Bakaikuko Galdeketa
- Altsasuko manifestazioa
- Irurtzungo Euskal Ekitaldiak



Abenduaren 10, igandean,
zuzenean, 12:30ean
Osasuna - Barça

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA ALTSASUN



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra





Xabier Reparaz

astekoa

Slow mountain

Aurrekoan entzun nuen slow mountain kontzeptua lehen aldiz. Slow food delakoaren pare mendizaleak idatzitako liburu baten izenburua da. Mendian lasaitasun eta patxadaz ibiltzean oinarritutako filosofia, gailur berriak ezagutu eta ezagunak berriro ere biziz aritzea. Azken urteetan sortutako mendiko lasterketa eta muturreko frogak mendizalearen sena bera ere zalantzan jarri eta hari buruz gogoeta bat egitea beharrezkotzat jo du Garbizuk.

Bat-bateotasunaren munduan murgildurik, estresak jotako langileak mendiak autoko kristalaren beste aldetik pasatzen ikusten dituz soilik. Hangoian izango diren paisaien bakea irrikatuz, aurrera doa gasoila xahutuz haraneko autobiatik. Aske sentituko bada harkaitz zuri tartean ikusi behar du bere burua, lasaitasun desiratu intimitate hartan gozatuz. Bainamugikorren arretra tiranikoak marka berriez bombardatzen dute haren xede erromantikoa.

Slow mountain, mendizalearen behar horren isla da. Gaur egungo lehiakortasun antzuak, gure markak etengabe sare sozialetan argitaratuz, mendian bilatu nahi genuen hura ahatzarazi digu. Adrenalina apur bat eta errekonozimendu sozial batengatik bada ere, zentzurik ba ote du kronometroari begira mendiak igotzea inguratzen gaituenaz gozatu gabe? Gure munduaren gaitza, besteen ginetik gelditu behar indartsu horrek irensten ditu bizitzako edertasunak. Begiratzan ez dakienak ezin ikusi.

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egiten dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; 948 564 275** edo **gutunak@guaixe.eus**.

hara zer dien

Adimen emozionala

Gaurkoan adimen emozionalari egingo diogu tarte bat. Gure bizitzan duen eragina kontuan hartuta, presente izan behar dugun kontzeptu bat dela deritzogu.

Gure gizartean zabaldua dagoen sinesmena honakoa da: zenbat eta ikasketa gehiago eduki –ikasketa unibertsarioak, masterrak...– orduan eta adimentsuagoa zara. Egia da ikasketak izatea oso positiboa dela, baina horrek ez digu gure bizitzaren arrakasta osoa baieztatzen. Pertsona batek lau hizkuntza jakin ditzake, baina ez badu ahalmenik beste pertsonekin harreman egokiak izateko edo bere motibazio pertsonalak ezagutzeko, nola mugituko da munduan?

Gizakiaren jokaera aztertzen dutenek baieztatu dute pertsona baten arrakastaren %20 adimen intelektualarekin harremanetan dagoela, beste %80, ordea, emozio gestio egokian oinarritzen dela. Hau dela eta, emozioen gestioari bere tarte eskaintzea merezi du, ezta? Bi adimen hauek ez dira kontrakoak, biak elkarlanean gure ongizatea sustatzen baitute.

Adimen emozionalaren barruan bost kompetentzia aurkitzen ditugu: norberaren burua ezagutzeko, norberaren motibazioa, enpatia, emozioen erregulazioa eta gizarte baliabideak.

Piramide batean irudikatzen baditugu, oinarrian norberaren burua ezagutzeko dago. Horrek ateak irekiko dizkigu garapen pertsonaleko esparruan errazago mugitzeko. Nolako naiz? Zein emozio bizitzen dut gehien? Belurra, tristura, poza... zein pentsamendu motak izaten ditut?...

Hemendik abiatuta beste kompetentziak ere garatu ahal izango ditugu. Norberaren motibazioak lagun-

men digu emozio egokiak erabiltzen, lortu nahi ditugun helburuak eskuratzeko. Nire bizitzan helburuak ditut? Helburu hauek lortzen ditut? Gauzatzen ditut?

Enpatia beste pertsonak sentitzen dutena jakiten lagunduko digu. Besteen hitzak aditzen ditut? Besteen emozioak identifikatzen ditut?

Emozioen erregulazioak gure emozioak erregulatu lagunduko digu. Haserretzen naizenean, zein intentsitatearekin egiten dut? Zenbat denbora eskaintzen diot tristurari? Eta pozari?

Bestekin mantentzen ditudan harremanekin bukatuko dugu, baliabide sozialekin hain zuzen. Hauek bestekin era egokian harremanetan lagunduko digute. Zein nolako harremanak ditut bestekin? Beste laguntza eskatzea kostatzen zait? Nola jasotzen ditut kritikak?

Kompetentzia desberdin hauekin lan egitera animatzen zaituztegu.

Sakanako Oinarriko Gizarte Zerbitzuak

gutunak

Bakaikuk irabazi du

Laida Etxeberria Kaiuela eta Ernesto Leitza Urrestarazu. BAKAIKUKO GURE ESKU DAGOREN IZENEAN/

2014ko udaberri egun batean izan zen. Bakaikuarrok erabakiaren hazia erein genuen. Giza katean eskuz-esku eta urtebete geroago, borondatea ehuntzen, lehen sustriak sendotzen hasiak ziren.

2016ko negu hotz batean izan zen. Bi ekitaldietatik lortutako indarrak baliaturik, herri galdeketa-aren ametsari ekin genion. Lehen egunak, ez ziren errazak izan: zalantzak, lanak, etsipenak, buruko minak... Baina oztopoak oztopo, gogoko tokian, aldaparik ez. Egunak pasa ahala, Bakaikuarrok babesa eta elkertasuna gero eta indartsuagoa zen. Herria gogotsu eta auzolanean, atzera kontaketa-ekin hasi zen.

2016ko azaroaren 27an izan zen. Hiru haitzen magalean erabakiak irabazi zuen. Herri gisa, jarrera eredu garri, parte hartzaile eta anitz batekin, hainbeste itxarondako eguna ezin hobeto joan zen, helburuetatik harago joanez eta izugarriko arrakasta lortuz.

2016ko abenduaren 2a. Eskerrak ematea besterik ez zaigufalta. Eki-

men honek Bakaiku indartu du, herria hunkitu, parte hartzaileagoa egin, auzolana sustatu eta ezberdintasun ororen gainetik, batu gaitu.

Mila esker gau eta egun lanean ibili zareten horiei, mila esker beti ondoan, laguntzeko prest egondako sakandar guztioi eta nola ez, mila esker Bakaikuko herritar zaren horri, zuri esker behin ere indako erabakiaren haziak loratu du! Herri txiki batean etorkizun handi bat marraztu dugulako, **ZORIONAK BAKAIKU!**

Ezin sinistu

Maria Benitez Frances

Espetxeratutako senideekin hitz egin ondoren hauxe da kartzelan dagoen gazte altsasuar baten bizipena.

Nire lagunak ezin zuen sinistu ziegako telebistan albistegian ikusten ari zena, Altsasuko gertakarietako Guardia Zibiletako batek edo bere neska-lagunak, ez omen du buruan, egindako kontakizun hura. Haiek ziegan egotean surrealismo puntu guztiak gaintu zituela uste zuen, baina adierazpen horiek entzutean bere okerretik atera zuten.

Altsasuren fikziozko erdibite-azarizen, zebra bide arriskutsuaz eta herrian bizi den tentsio eta beldur egoeraz. Noizbait Irlandan egon bazarete, segituan etorriko zaizkizue burura, hango kale luze

eta auzo guztiz banandu eta konfrontatuak.

Altsasuko eta Nafarroako edozein pertsonak badaki eta adierazi du, baieztapen hauek faltsuak direla eta "parte abertzale" eta "parte nacional" delakoak ez direla existitzen, ezta existituko ere. Baina Altsasu ezagutzen ez dutenendako, prentsari esker espainiar estatuko gizarteari begira, zoritxarrez, kontakizunak bat-batean egi bihurtzen dira, baita sententzia mahai gaineratzen dutenean ere.

Nafarroako eta Euskal Herri osoko jendarteak argi duenean zer bait faltsua dela, Espainiar estatuko jendartearendako egi bihurtzen da.

Horregatik daude altsasuar gazteak oraindik espetxean, alde bateko kontakizun faltsuak egi bihurtu direlako beste batzuen begietan, arazoa hor dago: komunikabideek erakusten duen erre-alitateak, justiziak berak baino indar gehiago hartzen duela.

Beraz, guztiok argi dugunean, Altsasun Gartzia Ximenez dela herria zeharkatzen duen antzina-ko N-1 errepidea, beste batzuek Belfastko "Falls Road" irudikatzen saiatzen dira oraindik ere. Eta gure lagunak bitartean ziegatik jarraitzen dute telebistan horrelako berriak ikusten.

Mila esker bihotzez larunbatean Altsasura gerturatutako guztiei, gure lagunak laster hemen izango ditugulakoan gaude.

GORA ALTSASU!

parrutik kanpora

Alcalá de Guadaira Portland-en errusketaren aurkako borroka gunea

Azaroaren erdialdera egin ziren Alcalá de Guadaira porlan-fabriketan erraustearen aurkako Estatuko VII. Topaketak. Bertan, hondakinak prozesatzeko porlan-fabriketan burututako errausketa aztertuz, jarduera horren gaur egungo lege-esparrua, errausteko prest ageri diren zementu-fabrikak kokatzen diren toki bakoitzean gertatzen ari diren borroka ereduak eta hondakinak kudeatzeko dauden alternatibak.

Espainiako Estatuko errausketaren aurkako plataforma guztiak parte hartu zuten, 3Mugak Batera barne, eta Mexiko eta Belgikako ordezkariak ere etorri ziren.

Zementu-fabrika bateko labeetan hondakinak erraustea tekniki koki zer den analizatu ondoren, txostengileek, jarduera horren eraginpeko eskualdeetako osasunean, ingurumenean eta ekonomian jasaten diren ondorioak xehatu zituzten. Horretaz gain, oso interesgarria izan zen zementu-fabriketako eta hauen inguruko enpleguari buruz egindako azterketa zehatza, eta bertan behera geratu zen zementugileek hainbatetan erabiltzen duten argudioa, hau da, ez erraustek enplegu galera dakarrela. Agerikoa da, errausten duten fabriketan egon dela lanpostu galera handiena.

Honen harira eta 0 hondakin lortzeko alternatiben azterketan, argi geratu zen hauek askoz ere lanpostu gehiago sortzen dutela errausketarekin alderatuz.

Batzarraren ondorio eta lehen-tasun nagusietako batzuk hauek izan ziren: plataformen arteko komunikazioa hobetu beharra, ontziak itzultzeko sistema bat ezartzearen aurka Ecoembes enpresak egindako presioa salatu, atez ateko bilketa eta auzo-konpostajea sustatu, zementu ekoizpenak dakarren osasun kostuen ikerketa bultzatu...

Bukatzeko, zementu-fabriketan erraustearen aurkako plataformen arteko lan koordinazioaren garrantzia azpimarratu zen, hondakinak kudeatzeko neurri jasangarriagoak eta eraginkorragoak sustatu behar direkin batera

Hiru mugak batera.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ZUZENTZAILA: Patxi Flores
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhua Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILAK:

BAZKIDEAK 

Mank
 s a k a n a

 **Nafarroako Gobernua**
 Gobierno de Navarra

ELKARTASUN AZOAK: Kaleko elkartasun eta kultura elkarteak elkartasun azoka txikia antolatu du gaurko, 9:30etik 13:30era, Altsasuko San Juan kalean, Batean eta bes-

tean jasotako CDak, DVDak eta liburuak salgai izanen dira. Ekonomia bazterketa pairatzen dutenendako dira irabaziak.

sakanerria >>

Euskararen eguna

>> Altsasu

Euskararen Eguna, lankidetzan

Bihar, 11:00etatik aurrera lortia kultur gune pareko zabalgunean

Altsasuko Udalak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak elkarrekin antolatu zuten joan den urtean Euskararen Eguna Altsasun. Aurten Nafarroako Gobernu Euskarabidearen bidez batu zaie antolakuntzan. Altsasun antolatutakoari dagokionez, 11:00etan hasiko da egitaraua. Euskaraz jolastu haur jolasen ikusizuna eskainiko du Dindaia fundazioak kultur guneko zabalgunean. 13:00etara arte hainbat gauza izanen dira txikiendako: gidari baten esanetara kantatu eta jolastu, talo tailerra, jolas txokoa, paraxuta, zabor koloretsua edota txikien txokoa.

Toki berean, 12:30ean, erakun-

deen-ekitaldia izanen da, baita irakurketa publikoa ere. Eguraldiak lagunduko ez balu Burunda frontoiak emanen lieke aterpe bi ekitaldi horiei. Egitaraua euskarazko zinema zikloko bi emanaldierekin despidituko da: larunbatean, 20:00etan, Jon Maiaren Gutik zura dokumentala. Eta, domekan, 17:00etan, haurrendako Zikoinak filma.

Nafarroako Gobernuak, ofizialki, estreinakoz aurten ospatuko du Euskararen Eguna. Iruñean, Tuteran eta Altsasun jarduerak antolatzeaz aparte, euskararen irudia eta ospe soziala hobetzeko gobernuak komunikazio kanpaina abiatu du. Foru gobernuaren nahietako bat da euskararen irudi erakargarria sustatzea eta euskararen eta



Joan den urtean Euskara eguneko egitaraua bertsolarien saioarekin Zumalakarregi enparantzan hasi zen.

Nafarroako balio positiboen eta etorkizunari begirakoan arteko lotura sendotzea, eta kanpaina hau borondate horren barnean kokatzen da.

Euskararen Nazioarteko Eguna

Eusko Ikaskuntzaren ekimenez 1949tik ospatzen da abenduaren 3an, Nafarroako egunarekin bate-

ra. Egun horren xedea da euskara adierazpide bereki gisa balio-estea eta ingurunean dituen edozein hizkuntzaren parekoa dela ohararaztea.

>>



Zelandiko ikasleak kulturartekotasun astean. ARTXIBOA

Euskararen marka eskuz esku

Zelandi eskola publikoko guraso elkarteak Euskararen eguna ospatzeko ekimena prestatu du gaurko. Ikasle guztiek orri-markatzaile berezi batzuk sortuko dituzte. Haietan euskararekiko esaldi baikor bat idatzi beharko dute ikasleek orri-markatzaileetan, hizkuntzak sortzen diena adierazten duena. Esaldi hori nahi duten hizkuntzan idazteko aukera izanen dute, euskaraz edo beste edozeinetan. Irakasleen laguntzaz beste hizkuntzetan ida-

tzitako esaldia euskaratu eta orri-markatzailean idatziko dute. Hori eginda, gaur bertan, ikasleek euren artean trukatu dituzte orri-markatzaileak. Haiei ematen dieten erabilera guztiz libre izanen da.

Ikastetxe guztia inplikatzeko duen ekimen xume horrekin guraso elkarteak hainbat helburu lortu nahi ditu. Alde batetik, ikasleriaren komunikazio-tresna denez, euskararekiko sentimendu baikorra bulkatzea. Bes-

tetik, euskarara eta ikastetxean dagoen hizkuntza aniztasunera hurbilpena izan nahi du ekimenak. Aldi berean, mezu baikorrez beteriko trukaketaren bidez, ikasleek arteko komunikazio eta elkarbizitza baikorra bulkatu nahi da. Zelandiko hezkuntza komunitate guztiak bat egin du ekimena garatzeko, horretan Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuaren laguntza izan dute. Ekimena pozik hartu dute eskolan

>> Olatzagutia

Antzerkia eta zinema euskaraz

Euskararen eguna dela eta Olatzagutiako kultur etxeak euskarazko bi emanaldi hartuko ditu asteburuan.

da. 17:00etatik aurrera **Lagundu!!! Arraina naiz** pelikula emanen da kultur etxean.



Ramon Agirre, Kandido Uranga eta Jose Mari Soroiz aktore ezagunek **Heroiak** antzezlanak jokatu dute, bihar, 20:00etan. Domekan, berri, haurrendako film emanaldia izanen

>>

Bi film euskaraz

Joan den asteburuan Jon Abriren **Neskatoak** dokumentala euskaraz ikusteko aukera izan eta gero, euskarazko zinema eskaintzak segida du asteburu honetan Altsasuko lortia kultur gunean. Jon Maiak zuzendu-

tako **Gutik zura** dokumentala emanen dute bihar, larunbata, 20:00etan. Basoen eta zuraren inguruan historia, bizi-esperientziak, istorioak eta etorkizunera begirada biltzen dira lan horretan. Igandean, berri, haurrendako euskarazko film bat ema-

nendute, **Zikoinak**. 17:00etan zinemara joaten diren haurrek, zikoina banatzaile baten komerierekin gozatzeko aukera izanen dute txikiak. Emanaldiak Udalak, Euskara Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernuak antolatu dituzte.

Itxesi jatetxea

Menua 16 €
Enpresa bazkari eta afariak

Asteburutan zabalik
948 464 327

655 225 717
Uharte Arakil

Txalaparta

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

TXARTEL

- Kartel erraldoiak
- Argazkiak
- Inprimaketak (koloretan)

Txartel
Inprenta digitala eta papergintza

Bake Kalea, 2 - 31800 Altsasu (Nafarroa)
Tlf. 948 564 002 | E-mail: txartel@txartel.net

Altsasu

Altsasuarren %34,7 euskalduna

Euskarazko ordenantza garatzeko udalak egindako galdetegiak eman duen datua da hori

Altsasuarren hizkuntza eskubi-deak bermatzeko helburuz, aurreko legegintzaldian udalak euskararen erabilerarako eta sustapenerako ordenantza onartu zuen. Hura garatzeko plan bat onartu zen joan den urteko azaroan. Eta, horrekin batera, Altsasuko euskaldunen errolda egitea erabaki zen. Azken horren bidez altsasuarren eta udalaren arteko euskarazko harremana bermatu nahi da. Horren guztiaren ondorioz 246 altsasuarrek udalaren komunikazioak euskara hutsean jasotzeko eskaera egin dute. Hala jasoko dute eskaera egiten duten herri-tar guztiek ere.

Etxean gehien hitz egindako hizkuntza

(euskara eta gaztelania izan ezik)

Hizkuntza Kopurua

Arabiera	14
Bengalera	2
Berberea	9
Frantsesa	2
Ingelesa	1
Katalana	3
Portugesa	15
Fula	2
Errumaniera	8
Guztira	56

Euskaldunen errolda hori egiteko udalak bi urtetik gorako altsasuar guztiari galdetegi bat bidali zien. Borondatezkoa zen galdetegiaren erantzutea. 1.584 erantzun jaso ziren, 804 emakumezkoenak (%50,8) eta 776 gizonezkoenak



(%49). Adinari dagokionez, jasotako galdetegi gehienak 30 eta 49 urte bitarteko pertsona helduei dagokie, %26,26, hain zuzen. Ehunekorik txikiena 0-14 urte bitartekoena da (%14,02). Besteak beste, euskararen ezagutza maila, etxean gehien erabiltzen den hizkuntza eta euskara ikasitako tokia zein den galdetzen zen. Horrek Altsasuko soziolinguistika egeari buruzko informazioa eskuratu da.

Euskaraz ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi

Jasotako datuen arabera, ahozko ulermenari dagokionez, %37,63k ongi ulertzen du euskara; %10,29ak testu errazak ulertzen ditu eta %22,22 hitz batzuk. Bakarrik galdetegi bete duten altsasuarren %29,86ak adierazi du ez duela euskara batere ulertzen. Hitz egiteko gaitasunari dagokionez, galdete-

gia bete dutenen %34,66k ongi hitz egiten dute euskaraz. Antzeko kopuru batek, %35,23k zehazki, ez du euskaraz batere hitz egiten. Gainerakoek testu errazak esan ditza-kete, edo, behintzat, hitz batzuk.



Euskara ikasi duten tokia

Galdetegi erantzun duten euskaldunen gehiengoak (%58,5) adierazi du ikastetxean ikasi dutela hizkuntza, zehazkiago, D ereduan. Nabarmena da ere euskara etxean ikasi dutenen ehunekoa: %40,4. Txikiagoa da euskaltegian euskara ikasi dutenen ehunekoa: %18,7.

Irakurmenari dagokionez, galdetegi erantzun duten %42,8k ez du euskaraz idatzitakoa batere ulertzen. %33,08k ongi ulertzen ditu euskarazko testuak. Gainera-

Euskara ikasi duten tokia

(bat baino gehiago izan daiteke)

Etxean	298	%40,4
Ikastetxean (D eredua)	432	%58,5
Ikastetxean (B eredua)	24	%3,3
Ikastetxean (A eredua)	87	%11,8
Euskaltegian	138	%18,7
Beste bat (zehaztu zein)	61	%8,3
Erantzunik ez	738	%100
Guztira	1.584	

koek hitz batzuk edo testu errazak ulertzen dituzte., Azkenik, idazmenari dagokionez, galdetegi erantzun duten %31,57k ongi idazten dute euskaraz. %44,32k ez daki ezer idazten euskaraz eta gainerakoek hitz batzuk edo testu errazak idazten badakite.

Galdetegi erantzun dutenen sexuari erreparatuta, ez dago alde nabarmenik ahozko ulermena, idatzizko ulermena, ahozko ekoizpena eta idatzizko ekoizpenari dagokienez.

Ezagutza adinaren arabera

Euskara ongi hitz egiten dutenen ehunekorik handienak haur eta gazteengan aurkitzen ditugu: %78,8 0-14 urte bitarteko haurren artean eta %72,4 15-29 urte bitarteko gazteen artean. Ehunekorik txikiena 65 urtetik gorako pertsonen dagokie: %6,4.

Hitz egin / Adina	0-14	15-29	30-49	50-64	65+	Bataz bestekoa
Ondo	%78,8	%72,4	%30,1	%14,4	%6,4	%34,7
Elkarrizketa errazak	%6,3	%7,5	%14,2	%10,0	%4,3	%9,0
Hitz batzuk	%9,5	%9,6	%25,0	%27,6	%24,9	%21,1
Batere ez	%5,4	%10,5	%30,8	%48,0	%64,4	%35,2
Guztira	%100	%100	%100	%100	%100	%100

eta gaztelania alde batera utzita, galdetegi bete duten pertsonen etxean gehien hitz egiten dituzten hizkuntzak portugesa eta arabiera dira.

Hizkuntza Kopurua %

Euskara	97, %6,1
Gaztelania	1.126, %71,1
Biak	305, %19,3
Beste bat	56, %3,5
Guztira	1.584, %100

Etxean gehien erabiltako hizkuntza

Galdetegi bete dutenek etxean gehien erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da, zehazkiago, %71,1ena. Soilik %6,1ek hitz egiten du euskaraz bakarrik. %19,3ak adierazten du bere etxean euskara eta gaztelaniaz, biak, erabiltzen direla. Euskara

Otaiko urbanizazioagatik 229.326 euro ordainduko ditu udalak

Altsasuko Udalak Otadiko 3. sektoreko urbanizazioa egin zuten eraikuntza enpresen artean 229.326 euro banatuko ditu. Eremuan zuten lur sail portzentajearen arabera jasoko dute dirua eraikuntza enpresek. Horrela Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenaren epaia betetzen du udalak. 2005Ean inguru hura urbanizatu zenean Otadia Alde Zaharrarekin lotzeko biderik ez zen aurreikusten, ezta trenbide ondoan harri lubeta egitea ere. Azken hori Adifek

eskatu zuen. Horrek urbanizazio lanen aurrekontua 900.000 euro igotzea ekarri zuen eta enpresek auzitegira jo zuten. Udalak diru kopuru hori gordea zuen, badaezpada, epaia ordaintzeko.

Irabazi asmorik ez duten herriko elkarteek eta taldeek udalen egoitzen erabileragatik tasarik ez dute ordaindu beharko etorkizunean. Hala erabaki zuen atzo udalak. Horretarako halako ekitaldiak antolatzen dituzten elkarte- en zentsua osatuko du udalak.



Makinak lanean Otadiko urbanizazio lanak despeditzen. ARTXIBOIA

SAKANA

Altsasuko Kaixo tabernakoa pintxo-pote burujabe onena

Sakanako Garapen Agentziak, Belardi tokiko ekoizleen elkarteak eta Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak antolatuta I. Pintxo-pote burujabe lehiaketa antolatzen zen azaroaren 19an. Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko 14 tabernek parte hartu zuten ekimean. Belardik emandako ibarreko produktuekin pintxo bana prestatu behar zuten tabernek. Epailak haiek dastatzen zituzten bezeroak izan ziren eta saria Altsasuko Kaixo tabernako Sukalki pintxoakeskuratu du. Honako osagaiak zituen: txahal egosia, porru eta kalabaza saltsan, kalabaza krema eta gazta apar hurrupa.

Antolatzaileek esan dutenez, "ikaragarriko arrakasta" izan du aurreneko esperientziak, "750 boto baino gehiago zenbatu dira". Haien artean ekoizleen hiru saski zozketatu zituzten eta honakoak izan dira irabazleak: Eli Etxeberria Uranga, Raquel Olaetxea Ibarrola eta Susana Baraibar Telletxea. +www.guaixe.eus

Nafarroaren eguna "elkartasunagatik" Altsasun ospatuko du Ahal Duguk

Ahal Duguko idazkari nagusi Laura Perezek adierazi duenez, Nafarroaren eta Euskararen egunean "gure herrien duintasuna ospatu nahi dugu, Mendialdetik Erriberrara, gure aniztasunaz harro, eta desberdinekiko errespetuan". Perezek gogorarazi du larunbateko manifestazioan izan zirela Altsasun eta "benetako arrakasta" izan zela, "probakazie eta herri oso bat kriminalizatzeko saioari tinko eta isiltasunaren indarrarekin erantzunez; izan ere, demokrazian aurrera egiteko bide bakartzat bakea eta elkarbizitza defendatzen duten indar sozial eta politiko guztiak bildu ziren bertan".

Perezek gaineratu duenez, "indarkeria tresna gisa erabateko ardurarik gabe erabili nahi dutenen aurrean erantzuna bat eta bakarra da, elkartasuna". Horregatik, aukeratu dute Altsasun "nafar guztion batasuna islatzen duen eguna. Hain egun berezia, herri kementsu honekin bat egin nahi dugu, altsasuarrekin konpartitu".

Larunbat eguerdirako etorriko dira Ahal Duguko Nafarroako kideak Altsasuara. Jakinarazi digutenez, Euskararen eguneko ekitaldia ikusi, herriko giroaz disfrutatu, potatu eta frontoian bazkalduko dute. Bazkaria Paris 365k emanen die eta, ondoren, Laura Perez idazkari nagusiak hitza hartuko du. Ospakizunak dantzaldiarekin despedituko dituzte. Ahal Duguk "jende guztia ekitaldian eta dantzaldian" parte hartzera animatu du.

» Bakaiku

Erabakiak irabazi du



Emaitzen gaineratik erabakiak irabazi duela azaldu dute herri galdeketa antolatzaileek

Euskal Herri independente bateko herritarra izan nahi duzu? galderari baietz esan diote bakaikuarrek. Erabakitze eskubideari buruzko herri galdeketa 297ko erroldatik 194k parte hartu zuten, %65,31ekoa. Baiezkoaren alde 156k egin dute, bozkatu dutenen % 80,4k. Ezetza 26k eman dute, % 13,4. Boto txuria eman dutenak, berriz, 10 izan dira, %5,15. Azkenik, 2 boto baliogabe izan dira, %1,03.

Emaitzak jakinda pozik eta hunkituta agertu ziren San Juan plazako karpan zeuden bakaikuarrek. Urte beteko lan, zalantza, buruko min, barre, dantza eta gozamenak merezi izan zutela adierazi zuten topa eginez. Galdeketa antolatu zuen Gure Esku Dagoko Txaro Ondarrak eta Ernesto Leitzak adierazi zuten, "emaitzak emaitza garbi dugu gaurko egunean, hiru haitzen begiradapean, erabakiak irabazi duela. Beraz, helburua bete dugu". Esker oneko hitzak ere izan zituzten "gau eta egun lan eta lan ibili zireten horiei. Askok izan zirete.

Eta eskerrik asko zuri, herri txiki baten etorkizun handi bat marrazten laguntzeagatik. 2014ko udaberriaren ereindako hazia loratu da. Erabakiak irabazi du gaurko egunean. Aupa Bakaiku!"

Eguraldia lagun eta giro ederrean ospatu zen erabakiaren festa Bakaikun. 13:00etarako erroldaren %55ak parte hartu zuen herri galdeketa. Botoa eman zutenen artean herriko alkate izandako guztiak zeuden. Egungo alkate Egoitz Urritzarekin batera, guztiek batera eman zuten botoa. Antolatzaileen izenean eguerdian Ondarrak eta Leitzak azaldu zuten, "guk gure alea jarri dugu herri honen erabakitze eskubidearen ibilbidean. Tantaz tanta, botoz boto, erabakiko baitugu herri honen etorkizuna eta norabide horretan lanean jarraituko dugu".

Galdeketa egiten ari ziren dimoztarrekin zuzeneko konexioa egin eta gero, heldu den urtean erabakitze eskubidea praktikan jarriko duten makina bat herritar ko ordezkariak hartu dituzte, Sakanakoak tartean. "Borondatea eta elkarlanean aritzeko animoa behar dira gaur egun arte 38 herri-

tan posible izan dena bihar hiru miloi biztanleko herri honetan gauza dadin".

Galdeketa behar bezala egiten zela ziurtatzeko begirale taldea izan zen. Haien artean zeuden, esaterako Etxarri Aranazko alkate ohi Maider Goñi edo herri bereko A13 platafomako Manu Gomez. Biek ere herrian izandako galdeketaetik eskarmentua dutenak. Guztia normaltasun osoz joan zen. Galdeketaekin batera festa egitarau zabalaz gozatzeko aukera izan zuten bakaikuarrek eta bisitariek.

Gure Esku Dago doinuari jarraiki dantza bikaina eskaini dute dantzariak, eta bakaikuarrek herriko zortzikoa dantzatzen animatu ziren. Baina aurretik zertaz gozatu egon zen Bakaikun. Txikiendako puzgarriak, azoka, Lakuntzako erraldoiak, dantzariak... eta baita Zubiondo ko kantu taldea ere. Herri bazkarian ehundik gora pertsona bildu ziren eta Edor akordeoilarien doinuei esker giroa bero-bero mantendu zen.

2017an galdeketa gehiago

Heldu den urtean 111 galdeketa egingen dira. Haietako batzuen antolatzaileek igande eguerdian lekukoa jaso zuten Bakaikun. Horien artean daude Sakanako sei herri: Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Altsasu, Olatzagutia eta Ziordia. Udaberri akaberarako aurreikusitako galdeketa. Arbizun ostiralerako, 19:00etan, udaletxeko bilkura gelan batzarrara deitu dute.



SAKANA

Dakizun euskara hori praktikatzeko



Herritar talde bat mintza-praktikan

Euskara ikasten edo hitz egiteko "askatu" behar direnak eta bideratzaile bat elkartzen dira Mintzakide taldeetan, hitz egitera

Euskara praktikatzeko hainbat zailtasun ditu euskaltegian dagoenak edo handik pasa eta euskaldundu denak: lotsa, segurtasun falta, zeinek hitz egin ez izatea, ohituraz gaztelaniaz hitz egitea... Halakorik ez da gertatzen Mintzakide programako taldeetan.

Izan ere, helburua euskara praktikatzeko da. Astean ordu bat eskaintzen zaio, edo norberak nahi duen maiztasuna. Hizkuntza praktikatu daiteke kafea edanez, zinemara joanez, pasieran... Herrietan erabilera bultzatzeko modu eraginkorra da arnaguneko sortzen direlako eta ereduaren ematen delako.

Programan parte hartzea doa-

koa da. Sakanan, Mintzakide programa AEK-k kudeatzen du. Mankomunitatearen diru-laguntzarekin. Eta euskara ikasi edo praktikatu nahi duen edonori zuzendua dago. Martxan dauden talderen batean parte hartu daiteke eta beste herriren batean talde berri bat sortzeko nahia dutenek ere aukeratu dituzte. Horretarako, hots egin dezatela

Martxan dauden taldeak*

Irurtzun: Astelehenean, 9:30ean Pikuxarren / Astelehenean 18:00etan Iratxoelkartean/Ostiralean, 17:15ean Pikuxarren

Urdiain: Asteazkenean, 19:00etan
Altsasu: Ostegunetan, 16:00etan, Koxkan/Ostiralean, 9:00etan Kaxon / Ostiralean, 9:00etan Kaxon (taldearen bikoizketa)
Ziordia: Asteartean, 16:00etan, liburutegian

600 482 024 telefonora, idatz dezatela sakana_mintza@aeek.eus e-

postara edo pasa daitezela AEKren Itsasi euskaltegitik.

nereaceno
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereaceno.com
nereaceno.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

» Irurtzun

Eskolatik emakumeen kontrako indarkeriaren aurka



Ikasle eta irakasle muralaren aurrean argazkirako. UTZITAKOIA

Atakondoa eskola, Irurtzango emakumeen taldearen aholkularitzarekin eta elkarlanean, genero berdintasuna lantzeko hainbat jardura egiten ari da egunotan. Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna dela baliatuz ari dira ekimen

horiek gauzatzen, beti ere, eskolaren proiektu sozioemotionalan oinarrituta.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko ikasleek parte hartu dute ekimenetan. Lehenik, genero berdintasun eza islatzen duten egoerei buruzko bide-

oa ikusi zuten. Ondoren, horren inguruan hausnartu eta berdintasunerako gogoia adierazten duten ideia, hitzedo irudien bilketa egin zuten. Ikasleek egindako lan guztiak Atakondoa eskolako sarreran prestatutako txoko batean jarri zituzten ikusgai ostiralean.

Ikasleez aparte, gurasoei zuzendutako proposamena ere badute Atakondoko zuzendaritzak eta Irurtzango emakume taldeak. Ikastetxeko gurasoak solasaldi batera gonbidatu zituzten asteartean. Genero berdintasunarekin sentsibilizatzeko bideo bat ikusi eta Katti Goikoetxea berdintasun teknikari eta genero gaietan adituarekin solasaldia eta eztabaida saioa izan zuten.

Bestetik, Erratzak Astinduzek ostiralean deitutako kontzentrazioan 120 pertsona elkartu ziren. Bizirik eta aske izan nahi dugulako leloa zuen elkarretaratzeak. Ondoren Iratxo elkartean egindako afarian, berriz, 70.

» Altsasu

“Emakumezkoek bizitza hobe bat izan dezagun”



Azaroaren 25ean autodefentsa feminista aldarrikatu zuten ere.

Indarkeria matxista, erantzun feminista! leloa zuen pankartaren atzean 100 bat pertsonak kontzentrazioa egin zuten ostiralean. Altsasuko mugimendu feministak deituta egin zen mobilizazioa emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunean. Indarkeria mota hori gizarte osoaren arazoa dela nabarmendu zuten eta “arazo sozial honekin bukatzeko” hel-

burua dutela adierazi zuten. Eraso matxistak ez direla soilik eraso fisikoak gaztigatu zuten: “eguneroko bizitan hainbat arlotan emakume izateagatik jasaten ditugu edonolako erasoak eta horien kontra borrokatu behar dugu”. Patriarkatuak “etengabe jartzen dituen oztopoak borrokatuko” dituztela adierazi zuten azkenik. Autodefentsa feminista aldarrikatu zuten.

» Altsasu

Ikasleak emakumeen kontrako indarkeriaren aurka

Urteak dira Altsasuko Udaleko Emakumearen Bilgunea ikasleekin lanketa egiten ari dela. Haien artean berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako ideiak ereiten ari da horrela. Altsasu Institutuko, Sakanari Lanbide Heziketa Institutuko, Sagrado Corazon ikastetxeko eta Iñigo Aritza ikastolako ikasgeletan landutakoa, urtean behin, komunean jartzen dute. Gaurko egunez, azaroaren 25ean, emaku-

meen kontrako indarkeriaren aurkako egunean.

Lau ikastetxeetako ikasleak Iortia kultur gunean elkartu ziren ostiralean, 180 bat. Emakundek eta Eudelek bulkatutako Beldur barik kanpainako lau bideo ikusi zituzten. Ikastetxe bakoitzeko neska-mutil bikote banak aurkeztu zituzten bideoak, baina emanaldi geroko azalpena egin. Ondoren, indarkeriaren aurkako ikurra den eskua irudikatu zuten.



Greziako errefuxiatu eremuak ezagutu dituzten altsasuarren testigantzak



Emakumeak Greziako errefuxiatu eremuan. AMAIUR MARTINEZ LAZKANO

Gaur, 19:00etan, Iortia kultur gunean

Altsasuko Udaleko Ongizate Batzordeak Greziako Tesalonikan dauden errefuxiatu eremuen inguruko Just people dokumentala, emanen du gaur Iortia kultur gunean. Dokumentala *Barañain errefuxiatuekin* taldeko eta herri horretako bizilagun den Xabier Aierrak egin du. Agorriean Greziako errefuxiatu eremuetan lanean izan zen Nafarroako suhiltzaileek antolatutako

taldearen bidez. Han bizitakoarekin eta jasotako irudi eta testigantzekin ondu du dokumentala. Lanak kanpalekuetan dauden pertsonen egoera ikusarazi nahi du. Horretarako, errefuxiatuen eta boluntarioen testigantzak jaso ditu. Dokumentalaren emanaldiaren ondoren Greziako errefuxiatu eremuak bertatik bertara ezagutu dituzten hainbat altsasuarren arteko mahai-ingurua izanen da.

Eguberri zuhaitza gaur piztuko dute

Joan den urteko arrakastaren ondoren, aurten ere eguberri zuhaitzaren piztea egingen dute. Eguberriaren argiztatuko den zuhaitza, ordea, beste bat izanen da: udaletxe parekoaren ordez Foru plazako intxaurrendoa. Argiztapena gaur, 20:00etan, mustuko du. Horrekin batera, nahi duen guztiarendako txokolate-jana izanen da. Aurten basoa euro erdian salduko dute eta jasotako diru guztia Mila Kolore elkartearendako izanen da, behar bereziak dituzten pertsonak biltzen dituen erakundearendako. Zozketak ere izanen dira. **Xurru**tek, Alde Zaharreko tabernariaren elkarrekin, pintxo potea eta bestelako sorpresak eskainiko ditu.

“*Bizi Altsasu*” lelopean eguberriarako egitarauaren aurreneko ekimena izanen da gaurkoa. Abenduaren 13an *Azarokote* kanpainako sariak, 40 urdaiazpiko, banatu-



Joan den urtean jakin-mina piztu zuen.

ko dira. Azkenik, abenduaren 30ean, eguerdi eta arratsaldean, haurrendako puzgarriak izanen dira. Altsasuko Dendariaren Elkarrekin, Xurru-tek, Euskadiko Kutxak, Altsasuko Udalak eta Nafarroako Gobernuak antolatu dute egitaraua.

» Etxarri Aranatz

Beilatokia mustuta

Izarra enpresak Kale Nagusiko 2. zenbakian duen beilatokia igandean mustu zen. Ekitaldian enpresako kudeatzaile Mikel Idoate, hileta zuzendari Fernando Berasain eta beilatokiako arduradun Osane Goikoetxea izan ziren. 120 metro karratuko azalera hartzen du beilatokiak eta beilarako gela bat du. Enpresak Sakanari urteko egun guztietan 24 orduz zerbitzua eman nahi dio. Enpresako arduradunek azaldu duteenez, beilatoki zabal, argitsu eta modernoa sortu nahi izan dute, eta aldi berean, eroso eta atsegina gertukoak babestua sentitzeko. Euren goiburua zein den gogorazi dute: “enpatia, hurbiltasuna eta begirunea”.

Kokapen egokiaren eskaera

Beilatokia zabaldua ere, etxarriar talde bat harendako kokapen egokiago eskatzen segituko du asteazkenean, 20:00etan, haren parean kontzentrazioak eginez. Igandean ere kontzentrazioa egin zuten.

» Bakaiku

Gazte asanbladaren 19. urteurrena

Egitaraua

Abenduak 2, ostirala
Arratsaldean Garagardo azoka.

Abenduak 3, larunbata
Erronka: egun osoan euskaraz hitz egitea
Arratsaldean Garagardo azoka.
19:30ean Kontzentrazioa.
22:00etan Afaria.
23:30ean Karaokea.

Abenduak 4, domeka
17:00etan Erresaka pasa eta txokolate-jana.

Abenduak 10, larunbata.
Elkartasun eguna
14:00etan Bazkaria.
19:00etan Kontzentrazioa. Gero triki-poteo.
21:30ean Bokata-jana.
23:00etan Kontzertuak: Sofokoa eta Kaotiko.

>> Altsasu

Sakana institutua ikasketa-zerbitzu sariketan finalista

Ikastearekin batera komunitate-ari zerbitzua eskaintzea, horixe da ikasketa-zerbitzua. Estatuko ikasketa-zerbitzu bederatzigarren topaketan barruan sei hezkuntza proiektuari sariak eman zizkioten, Xixonen, azaroaren 18an eta 19an. Hainbat mailatan 171 proiektu aurkeztu ziren lehiaketara eta Sakana Lanbide Heziketa (LH) institutuarena finalisten artean sailkatu zen, 17. postuan.

Maiatzaren 19an LHko ikasleek Iturmendiko Arrano Beltza eskolan bizikletak aparkatzeko gailua jarri zuten. Horretarako, eskolako txikien marrazkietan oinarritu ziren. Proiektu hori izan da finalera iritsi dena. "Baina guk duguna askoz ere zabalagoa da. Josefina Arregi klinikak behar duen guztian laguntzen dute gure ikasleek: matxuratutako oheak konpondu, soldadura puntuak eman... Beraz, heldu den urtean aurrerago gelditu gaitezke". Arantza Bengoetxea irakaslearen azalpenak dira. Bera eta ikastetxean proiektuaren koordinatzaile Berta De Pablo Xixonen izan ziren. Biak ere "pozik" bueltatu ziren Xixondik, "guretako eta ikasleendako oso aberasgarria izan da".

Segida

LHko soldadurako 2. mailako ikasleak joan den urtean Altsasuko ikastetxe guztiengana zuzendu ziren. Hiri-altzariren baten premia izanez gero ikasturte berrian elkarlanean egiteko aukera eskaini zieten. Horrela, haien soldadura praktikak komunitatearen zerbitzurako onuragarria dira. Hainbat proposamen jaso zituzten. "Baina ikasturte honetan soldadurako 2. mailan hiru ikasle besterik ez daude. Lan asko eta langile gutxi", argitu digu Bengoetxeak. Horregatik, proiektu bakarrari heldu diote, Zelandi eskola publikoan lorategi bertikala egitea. Horretan ari dira dagoeneko.



Cabanillasko eskolakoak eta Sakana institutukoak Xixonen. UTZITAKOIA

>> Altsasu

Herri baten erantzuna

Ferietako liskarraren ondoren izandako atxiloketak, espetxeratzek, zurrumbilo politiko-mediatikoak altsasuar asko sumindu ditu. Neurritz kanpokat jotzen dute liskarraren ondoren identifikatutako gazteekin gertatutako



guztia eta bidegabekia jotzen dute hedabide batzuek liskarrari eta Altsasuri emandako tratamendua. Horregatik guziagatik, altsa-

asko eta toki ugarietatik iritsi zirelako mobilizazioaren bezperan.

Herriko dendek eta tabernek manifestazio garairako itxi zuten. Hura garaiz hasi zen, 13:00etan. 2.600 metroko ibilbidea zuten aurretik. Deitzaileen ordezkariak eusten zioten Altsasu zioen pankartari: Javier Ollo alkatea, Arantza Bengoetxea, Virginia Alonso eta Julia Cid zinegotziak, Alfredo Urkijo, Juan Carlos Calleiras eta Amaia San Roman senideak eta Idoia Goikoetxea Altsasuarra eta harro plataformakoa. Haien atzetik beste pankarta bati eusten zioten auzipetuen senideak, *Altsasun nahi ditugu* irakur zitezkeen.

Manifestazio burua Iortziako zabalgunera 14:05 pasatxo iritsi zen. Orduan oraindik Foru plaza iritsi gabe zeuden azken manifestariak. 20.000 bat pertsona elkartu zuten deialdiak. Bidea isiltasunean egin zen. Txalo zaparradarekin abiatu zen manifestazioa eta horrela bukatu zen. Hitzaldiaren ondoren atxilotuak askatu oihuak entzun ziren.

Irakurketa

Manifestazioaren akaberan Javier Casteigek, institutuko zuzendariak, eta Amaia San Romanek, irakaslea eta inputatutako baten amak, hitza hartu zuten, lehenak euskaraz, gaztelaniaz bigarrenak. Antolatzaileek manifestazioko Altsasu leloarekin bi gauza aldarrikatu nahi izan zituztela azaldu zuten. Batetik, "gure herriaren izaera nabarmendu nahi dugu. Altsasu herri langilea da, anitza. Kultura desberdinen arteko elkarbizitza normaltasun osoz gauzatu da. Hamaika herritatik etorri diren pertsonak gure herriaren parte dira. Altsasu, bizikidetzaren eta bakearen alde dago. Frogatu



Kontzentrazioek segituko dute

Ferietako liskarragatik Soto del Realen eta Alcalá Meco espetxetan preso daude zazpi altsasuar. Haien askatu eta auzia Iruñeko epaitegira bueltatzeko eskatu zituzten kontzentrazioak egin dira atxilotu dituzten egun beretik, azaroaren 14tik. Jakinarazi digutenez, abenduaren 20ra arte egu-

nero kontzentrazioak egingen dira Altsasuko udaletxe parean, 19:00etan. Horrekin batera, atxilotetaren eguna gogoan, hilabete bakoitzeko 14. egunean mobilizazio bereziak izanen dira. Bestalde, defentsaren helegitea atzera bota du Iruñeko epaileak. Defentsako abokatuek eskatu zioten auzia Espainiako Auzitegi Nazionalera bideratu beharrean Iruñean segitu zezala.



izan dugu hori".

Horrekin batera, Altsasuren "kezka" azaldu zuten. Ferietako liskarraren ondorioz "herriko 11 gazteren etorkizuna kolokan dago. Gauzak ikaragarri puztu dira eta neurritz kanpoko kartzela-zigorak eskatzen dizkiete, ekintza terrorista leporatzen dietelako". Auzia Espainiako Auzitegi Nazionalan dagoela eta babesgabe sentitzen direla nabarmendu zuten. Bi eskaera egin zituzten: zazpi presoak lehenbailehen askatzea eta auzia Nafarroako Instrukzio 3. epaitegira bueltatzea, "hura baita hasieran kasua hartu zuena. Ezzen handik inoiz atera behar. Irmo eskatzen dugu".

Aldi berean, herriaren irudierekin kezkatuta zeudela esan zuten. "Ez dugu onartzen komunikabide askotan eman den irudia. Ez dugu onartzen gutaz esan diren asko. Altsasu herri alai da, herri atsegina. Bere tradizioekin harroa. Herri irekia". Altsasuarren elkartasuna nabarmendu zuten: "ez dugu gure herria inoiz horren batuta eta minduta ikusi; kezkatuta baina elkarlanean;

bakoitza bere ideologiatik, baina gazte horien eta herri osoaren alde". Manifestazioa eta aurretik egin diren gainerako mobilizazio guztiak "baketsuak, gizalegezkoak eta giza eskubideen aldekoak" izan zirela azpimarratu zuten. Guztiari buelta emateko aurretik lan asko gelditzen zela esanez despetitu ziren.

Gurasoak parlamentuan

Ferietako liskarragatik terrorismo delituagatik auzipetutako 11 gazte altsasuarren gurasoen ordezkari Nafarroako Parlamentuko Lehendakari, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia Batzordearen lan saio batean izanen da. Harekin batera Altsasuarra eta harroko kideak ere izanen dira. Saioa gaur izanen da, 12:30ean. Parlamentuan izanen den lan saio horretan bizi duten egoeraren berri emanen dute altsasuarrek. Lan saio eskaera gobernuari eusten dion laukoak proposatu du.

SAKANA

Hiru enpresa Indiako energia-enpresekin harremanetan



Enpresa eta instituzioetako arduradunak familia-argazkian.

Industrias Barga, Laneko eta Jatorman enpresetako ordezkariak, Nafarroako beste hainbatekin batera, Indian egon ziren azaroko hirugarren astean. Guztiak ere osagai eta zerbitzuen enpresak dira eta beraien negozioa zabaldu nahi dute, energia eolikoan dagoeneko mundu-

mailan laugarren postuan dagoen herrialdean. Bilera tekniko-komertzial horietan, besteak beste, Indiako aerosorgailu-fabrikatzaile nagusiekin elkartu ziren.

Dagoeneko Indian dauden enpresek osatzen duten Wind Supply talde nafarrak prestatu zuen bidaia. Bere-

ziki Gamesarako hornidura-lanetan dabil Indiako aerosorgailu-fabrikatzaile handiena dena. Nafarroako Gobernuak nazioarteko tze planen barruan bidaia diruz lagundu zuen eta ekonomia lehendakariorde Manu Aierdi ere joan zen. www.guaixe.eus

Turismo garapen eredu desberdinak ezagutzeko

Horretarako balio izan zuen Turismo Garapen Jasangarriaren esperientzien I. Jardunaldiak, Uharteko Arakilgo monasterioan astelehenean ospatu zena. 30 bat pertsona elkartu zituen hitzordua. Hura Susana Condek zabaldu zuen. Agrotavel Turismo Responsable enpresako kideak turismo jasangarria zer den azaldu zuen lehenik.

Ondoren, bertaratutakoek lau esperientziaren berri jaso zuten: Fco. Javier Gonzalezek Kaaño etxea (Arrats) landetxe ekologikoa- ren garapen ereduaz azaldu zuen; Aldabe zerbitzu turistikoko Aitziber Makatzaga Zeraingo garapen ereduaren berri eman zuen; Qete-



Herritarrek hitzaldian gomendioak eta informazioa jasotzen.

oko (Zaragoza) Olga Lopez geologia-turismoaren inguruan aritu zen eta, azkenik, Juan Pablo Sarmiento, Khuska Travelekoa, Peruko landa turismoaren garapena nolakoa izan zen azaldu zuen. Bildutakoek Zamartze bera ezagutzeko aukera izan zuten ere.

Sakanako Garapen Agen-

tziak antolatutako jardunaldia, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Sakana 2020 Plan Estrategikoaren barruan kokatutako jardueraz Paki Urbitarte turismo teknikariak azaldu digu "oso interesgarria eta aberasgarria" izan zela turismo garapen eredu desberdinak ezagutzeko.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Miguel Asurabarrena Urdaniz

I. urteurrena

Gure ondotik joan zinen, baina ez gure bihotzetik. Beti jarraituko duzu gurekin. Meza, abenduaren 4an goizeko 11:00etan ospatuko da Lakuntzako elizan.

Lakuntza

Felix Iribarren Iribarren

Nahiz eta urte bat pasa, Irañetako txoko guztietan sentitzen zaitugu.



Eva

Zure gozotasuna, zure maitasuna, zure irrifarra, gure oroimenean ionko dira

Urdiaingo lagunak



Josefa Galarza Urdiain

Eguna amaitzean, eguzkia joana bihotzaren taupadak, ezinaren zama, ilargiaren hitza bihotzak darama. Ezinean dizut: Esker mila ama.

Bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu gure ondoan egon zareten guztiei eta bereziki, JOSEFINA ARREGI KLINIKA, Blanki, Edurne eta Ireneri.



Eva Ortega Collin

Altsasu BHIko hezkuntza komunitate osoak bat egiten du familiaren doluarekin.

Altsasuko BHI Institutua



Oihan Garmendia Arruabarrena

Ander Azpiazu Etxarri

Beti gure gogoan..

Kintuek

JAIOTZAK

- Izar Aramendia Nuñez azaroaren 23an, Altsasun.
- Unai Bengoetxea Checa azaroaren 24an, Altsasun.
- Aimar Claver Mazkieran azaroaren 26an, Altsasun.

HERIOTZAK

- Pilar Urdiain Mendoza, azaroaren 19an, Ziordia.
- Juan Lanz Andueza azaroaren 27an, Lakuntzan.
- Josefa Galarza Urdiain azaroaren 27an, Urdiainen.
- Joxe Lazkano Azpiroz azaroaren 30ean, Lakuntza.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Oroigarriak

egiten ditugu





948 564 275
Foru plaza, 23-1 Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus



Joxe Lazkano Azpiroz "Toto"

Poteoan, plazan... zure umorea faltan izango dugu. Bidai on!

Betikuek, Lakuntzan

MENDIA

DONOSTIA-PAISAIA SAKANAKO MENDI-ZALEEKIN: Abenduaren 11n ibilbide zorrak garrira prestatu dute gure mendizaleek.

Autobusa 8:30ean aterako da. Izena emateko herrietako arduradunei abisua eman behar zaie edo 639 11 76 31ra deitu.

Pala

Pala ikuskizuna hastera doa

Sakanako XI. Gure Pilota Emakumezkoen Pala Torneoa asteburuan hasiko da. Eliteen mailan, 2. mailan eta gaztetxo mailan jokatu da. Euskal Herri mailako puntako palistak lehiatuko dira

Palazaleek badute zertaz gozatu, asteburu honetan hasiko baita Sakanako VI. Gure Pilota Emakumezkoen Pala Torneoa. Eliteen mailan, 2. mailan eta gaztetxo mailan jokatu da, eta Sakanako Mankomunitatek adierazi digutenez "egun Euskal Herrian puntako palistak direnak lehiatuko dira, batetik, eta kategoria txikitzen Etxarri Aranazko Gure Pilotan eta beste klub batzuetan trebatzen ari diren neskek, bestetik". Beraz, puntako pala partidez gozatzeko aukera egongo da.

PALISTA ONENAK

Partidak Etxarri Aranazko eta Arbizuko pilotalekuan jokatu dira, larunbat arratsaldetan eta igande goizetan. Elite mailan 9 bikote lehiatuko dira eta bigarren mailan, aldiz, 7 bikote. Palisten artean sakandarrak daude, elite mailan Yanira Aristorena, Etxanizekin bikotea osatuko duena. Bigarren mailan, Uxue Mendinueta, Irati Lasa, Izar Parot, Irati Igoa eta Ane Eskala daude parte hartzaileen artean.

Sakanako XI. Gure Pilota Emakumezkoen Pala Torneoa

1. jardunaldia

Larunbatean, 17:30ean, Etxarri

2. maila:

Suarez II.a-Mendinueta / Igoa-Parot

Eskala-Villanueva / Martin-Lasa
Suarez I.a-Ruiz de Azua / Ardanaz-Gabirondo

Eliteen maila:

Igandean, 10:30ean, Etxarri

Eliteak:

Murillo-Arrieta / Garmendia-Araiztegi
Graciet-Ruiz de Larramendi / Muneta-Eizmendi
Arrizabalaga-Bordagaray / Etchelecu-M.Mendizabal

2. jardunaldia

Abenduaren 10ean, 17:30ean, Etxarri Aranazten

2. maila:

Igoa-Parot / Calvo-Urtasun
Martin-Lasa / Suarez I.a-Ruiz de Azua
Ardanaz-Gabirondo / Eskala-Villanueva

Abenduaren 11n, 10:30ean, Arbizun

Eliteak:

Garmendia-Araiztegi / Pradera-Mendizabal
Aristorena-Etxaniz / Arrizabalaga-Bordagaray
Muneta-Eizmendi / Irazustabarrena-Huizi

Kirolegia

Hauek dira Sakanako kirolaririk onenak

Ailetz Lasa Lizarraga eta Josu Etxeberria, Anne Lapuente, Javier Zeberio, Izaskun Beunza, Jose Mari Merzero eta Arantzazu Larrañaga dira 2015-2016ko kirolari onenak, emakumeen Altsasu futbol taldea da talde onena, Iratxo da euskara gehien bulkatu duen taldea eta Manuel Morcillo eta Ramon Arratibel aipamen bereziak

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak bi urtetik behin saritzen ditu eskualdeko kirolariak eta kirol taldeak. Horrela, aurten 2015eko eta 2016ko Sakanako kirolari onenak aukeratu ditu. Aukeraketa prozesuan sakandarrak bidalitako proposamenak aztertu ditu kirol teknikari, kazetari eta kirolarekin lotutako teknikariez osatutako epaimahaiak. Erabakia hartzea kosta egin zen, Sakanako kirolari bikainak ditugulako, baina epaimahaiak azkenean hartu zuen eraba-



Javier Zeberio eta Izaskun Beunza, Sakanako kirol onenetako bi. UTZITAKOAK



kia eta 2015eko eta 2016ko kirolari onenak, talde onena eta euskara gehien bulkatu duen taldea izendatu zituen eta bi aipamen berezi egin zituen. Aurten, lehenengoz, sari bat partekatua izanen da. Izan ere, 18 urtez azpiko gizonezko kirolari onena aukeratzekoan, Ailetz Lasa eta Josu Etxeberria txirrindulariak parez pare ibili direla hartu da kontuan, eta, azkenean, biak izendatzea erabaki da, bide batez, kiroltasuna sustatuz.

Sari ematea abenduaren 9an Ziordian

Sakanako kirolari onenen sari ematea abenduaren 9an izanen da, ostiralarekin, Ziordiko udalarekin, 20:00etan. Ondoren, auzatea izango da Ziordiko Errekakartea elkartean.

Sakanako kirolaririk onenak

18 urte baino gutxiagoko gizona: Ailetz Lasa Lizarraga eta Josu Etxeberria Azpilikueta

Ziordiko kirol batzordeak eta Guaixek proposatuak.

· Lasaren merituak: Burunda klubekoa, 1. goa Euskal Herriko Gaztetxoak Torneoan eta Arabako Erlojupeko Banakako Txapelketan. Burundakoekin txapelketa Nafarroako Taldekako Erlojupekoan, Tafallan. Amaro XXIX. Sari txapelketa. Nafarroako Erlojupeko txapelketa. 16 urte, Ziordia.

· Etxeberriaren merituak: Aralar klubekoa, Nafarroako Erlojupeko txapelketa, Nafarroako Kirol Joketan kadete mailako txapelketa, Arabako Itzuliko txapelketa eta Izarren Trofeo txapelketa. 16 urte, Iturmendi.

Bi txirrindulariak parez pare ibili dira eta primerako denboraldia egin dute; Nafarroako selekzioarekin aritu dira biak. Kiroltasunagatik, saria bie ematea erabaki da.

18 urte baino gutxiagoko emakumea: Anne Lapuente Perez

Ziordiko kirol batzordeak proposatua.

· Merituak: Nafarroako Irristaketa Joketan zilarra, 1.500m lerroan eta 500m sprintean. Brontzea Espainiako 300 metroko esprintean eta Nafarroan txapelketa. 13 urte, Ziordia.

18-35 urte bitarteko gizona: Javier Zeberio Arraras

Bakaikuko Udalak eta Esther Erdoziak proposatua.

· Merituak: Lehenengo sakandarra izan da zortzimilakobatigotzen. Cho Oyugodu (8.201 m), oxigenorik eta sherparik gabe. 33 urte, Bakaiku.

18-35 urte bitarteko emakumea: Izaskun Beunza Azazeta

Sakanako Mankomunitateak proposatua.

· Merituak: Ziordiko herri lasterketa, Ergoienako Birako eta Sakanako Herri Lasterketa txapelketa. Txapelketa Etxarri Mendira Joan Etorrian, bigarrena Olatzagutia-Urban eta lehena Lakuntza-Aralar lasterketa ibilbide laburrean. 2015eko Altsasuko San Silbestreko txapelketa, 2015ean 5.a Nafarroako Kross Luzean eta 10.a Nafarroako Kross Laburrean. 31 urte, Olazti.

35 urte baino gutxiagoko gizona: Jose Mari Merzero Lizarraga

Ergoienako Udalak proposatua.

· Merituak: Urrezko domina 2016ko Espai-

niako Beteranoen 10 km-ko Ruta Txapelketa, 75 urtetik gorako mailan eta urrezko domina 2015eko Espainiako Beterano Txapelketa 75 urtetik gorako 10 kilometrotan. Azken urteetan zilarrezko eta brontzezko domina ugari jaso ditu beteroenen mailan. Ibilbide luze darama atletismoan. Munduan barna jokatu du 9 maratoitan parte hartu izan du eta 77 urterekin inguruko lasterketa guztietan parte hartzen du. Unanur.

35 urte baino gutxiagoko emakumea: Arantzazu Larrañaga Urien

Sakanako Mankomunitateak proposatua.

· Merituak: Mendi lasterketan eta ultra trail-letan ibilbide bikaina. Valle de Tena Trail-ean (78 km) bigarrena, XX. Hiru Haundietan, Euskal Herriko Mendi Erronkan (67 km) eta Gipuzkoako 2 Haundietan (88 km) lan bikaina. Ehunmilak (168 km) ere egin du. 35 urte, Uharte Arakil.

Sakanako kirol talderik hobereena: Emakumeen Altsasu futbol taldea

Sakanako Mankomunitateak proposatua.

· Merituak: Ahalegin handia egin eta ederrki kostata, Sakanako emakumeen talde sortzea lortu zuen Sociedad Deportiva Altsasuak 2015-2016 denboraldian. Futbol 8ko ligan txapelketa faserari iritsi ziren. Egund, 2016-2017 denboraldian emakumezkoen

bi talde ditu Altsasuk, erregional mailakoa eta Futbol 8koa.

Euskaragehien bulkatu duen kirol taldea: Iratxo taldea

Irurtzungo Udalak proposatua.

· Merituak: 27 urte daramatzate Sakanako Ibilaldi Handia antolatzen, Sakanako Mendizaleen parte dira eta urte osoko egutegia dute. Bestalde, botxa txapelketa ere antolatzen dituzte. Eta beti euskarari lehentasuna emanez.

Aipamen berezia: Manuel Morcillo Larraza

Francisco Javier Morcillok proposatua.

· Merituak: Boxeolaria. Estatu txapelketa 1966 eta 1967an. Paris, Roma, Atenas eta Tunesko Mediterraneoko Jokotan hartu zuen parte. Mexikoko Olinpiadetan ezin izan zuen aritu profesionala egin zelako. Altsasu.

Aipamen berezia: Ramon Arratibel Lakuntza

Etxarri Aranazko Udalak proposatua.

· Merituak: Mendizaleatasuna gazte belaunaldi guztiei transmititzen jakiteagatik. Urte luzez mendiarekiko duen pasioagatik, batez ere euskal mendiekiko. Bere ibilbide luzeagatik. Lizarragabengoakoa.

Areto futbol

I. Emakumeen Areto Futbol Txapelketa Irurtzunen

Abenduaren 6an jokatu da 12 orduko txapelketa

Guan taldeak, Irurtzungo Udalen laguntzarekin, 12 orduko I. Emakumeen Areto Futbol Txapelketa antolatu du Irurtzunen, abenduaren 6an. Izena ematea zabalik dago azaroaren 30era arte, 676 57 24 78 (Iñaki) telefonora hots eginez. Talde bakoitzak 80 euro ordaindu behar ditu izena ematerakoan, eta sari bikainak egongo dira. Lehenengo lau taldeek saria jasoko dute, eta, horretaz gain, jokalariek eta atezain hobereenak ere sariak izango dira.

Abenduaren 5ean taldeen zozketa egingo dute eta abenduaren 6an hasiko da lehia. Antolatzaile-



Lakuntzako Bil-Toki taldeko neskek.

ek gaineratu dutenez, final handiko atsedendian Gabonetako saskia zozketatu da. Antolakuntzak txapelketan aritzera animatu ditu emakumeak. Izan ere, jakina da areto futboleko aritzen direla emakume asko, baina orain arte ez da egon, gurean, emakumeen txapelketarik. Ea txapelketa bikaina ateratzen den.

Automobilismoa

Aldekoa eta Goikoetxea Espainiako bosgarrenak

Asteburuan Pozoblanco Hiria Rally gogorrean bosgarrenak sailkatu ziren eta Espainiako Txapelketa 5. postuan bukatu dute

Asteburuan IV. Pozoblanco Hiria Rallya jokatu zen, Espainiako Lur Gaineko Rally Txapelketarako puntuagarria zen azken proba. Eguraldiak berez gogorra den rallya are gogorrago bilakatu zuen eta pilotuek eta kopilotuek gorriak eta bi ikusi behar izan zituzten.

53 autok bukatu zuten Pozoblanco Rallya eta Alexander Villanueva pilotua eta Oscar Sanchez kopilotua (Citroen Ds3) gailendu ziren (1:01:10). Carlos Aldekoa pilotuak eta Javier Goikoetxea pilotu olaztiarrak (Ford Fiesta R5) sekulakolana egin zuten. Bi kolpe izan zituz-



ten, baina lasterketa bosgarren postuan bukatzea lortu zuten (1:05:48). "Bosgarrenak baina pozik, osorally zaila izan baitzen. Bi kolpe txiki izan genituen, lokatz pila zegoelako. Villanuevak irabazi du Espainiako txapelketa eta gu bosgarrenak izan gara, dagoen maila kontuan izanda, oso pozik egoteko modukoa" azaldu digu Goikoetxeak.

Atletismoa



10 km-ko probako irteera. UTZITAKOIA

Sakandarrak txukun 39. Donostiako Nazioarteko Maratoian

Antton Zelaia eta Javier Borrega 203.a eta 204.a izan ziren, biak denbora berean (2:55:50)

Sakandarrak 39. Donostiako Maratoian

Maratoia (42 km)

1.Hosea Kipromo Maiyo (Eldoret)	2:51:51
203.Antton Zelaia (Urd.)	2:55:50
204.Javier Borrega (Urd.)	2:55:50
267.Mikel Astiz (Ihab.)	2:58:44
742.Igor Artieda (Etx.)	3:18:04
1.306.David Oroz (Urd.)	3:34:25
1.730.Ivan Martin (Alts.)	3:51:24

Maratoi erdia (21 km)

1.Fedrik Uhrbom (Stockholm)	1:07:40
145.Ivan Sobredo (Alts.)	1:24:25

10 km

1.Johan Wallden (Stockholm)	31:30
12.Sergio Garcia de Eulate (Alts.)	33:55
16.Beñat Katarain (Lak.)	34:11
18.Alberto Martinez (Lak.)	34:14
22.Raul Audikana (Olaz.)	35:07
48.Alatz Agirre (Arb.)	36:48
63.Iñaki Alvaro (Alts.)	37:33
66.Jose Ignazio Mikeo (Lak.)	37:36
88.Iraitz Senar (Lak.)	38:38
234.Juanar Mogollon (Irur.)	46:53
396.Amets Artieda (Etx.)	51:28

Igandean, guztira 5.500 korrikalarik baino gehiagok lortu zuten 39. Donostiako Nazioarteko Maratoia despeditzea.

Maratoian (42 km) keniarrak izan ziren jaun eta jabe. 2.541 korrikalari iritsi ziren helmugara, Eldoretteko Hosea Kipromo Maiyoburu zela (2:11:51). Hiru minutu pasa atera zizkien David Barmasairi (2:15:02) eta Paul Kimeliri (2:15:56). Emakumezkoetan Marisa Casanueva izan zen azkarrena (2:35:32). Sakandarrak txukun aritu ziren: Antton Zelaia urdiaindara 203.a izan zen eta Javier Borrega altsasuarra 204.a, biak denbora berean (2:55:50). Maratoi erdian (21 km) Fedrik Uhrbom (1:07:40) eta Cecilia Norrbom (1:16:15) suediarrek gailendu ziren helmugara iritsi ziren 2.119 korrikalarien artean. Ivan Sobredo altsasuarra 145.a sailkatu zen (1:24:25). Eta 10 km-ko proba osatu zuten 837 korrikalarien artean Johan Wallden suediarra (31:30) eta Danielle Hodgkinson britainiarra (35:55) izan ziren txapelkunak. Sergio Garcia de Eulate bikain aritu zen eta 12. postuan sartu zen helmugara (33:55).

AZKOITIA

Larunbatean jokatuak XII. Azkoitiako Herri Lasterketa Raka Maratoian (10 km) Yerai Varela gailendu zen (31:40). Emilio Guirado 66.a sartu zen helmugara (38:29).

Pilota

Binakakoa: Ezkurdia Merino II. arekin eta Zabaleta Elezkano II. arekin

Asteburuan hasiko da Binakako Txapelketa. Bi ordezkari sakandar izango ditugu, Ezkurdia eta Zabaleta

Igandeko lau t'erdiko final zirraragarria erabaki eta hurrengo egunean, Binakako Txapelketa aurkeztu zuten Bilbon. Ez zen apenas sorpresarik egon. Azken binakakotik Pablo Berasaluze ez da ariko, erretiroa hartu duelako, eta Aitor Zubietta etxarriarrak eta Juan Martinez de Irujok ere huts egingo dute, min hartuta daudelako. Egungo txapelkunak, Aimar Olazol eta Mikel Urrutikoetxea, ez dira batera ariko. Txapelketa orekatua izango dela nabarmendu zuten antolatzaileek, bikote guztiak indartsuak direlako, baina pilotazaleen artean Irribarria eta Rezustak osatutakoa indartsuena zela entzun izan zen. Irribarria, baina,



Sakandarrak, aurkezpenean. UTZITAKOIA

ez zegoen ados. "Biko guztiak dira onak, eta gogotik lan egin behar dugu irabazteko".

Gaur Ezkurdia, Zabaleta etzi

Ezkurdia eta Merino II.a gaur sartuko dira lehian. Artola eta Albiisu izango dituzte aurkari. Aldiz, igandean lehiatuko dira Elezkano II.a eta Zabaleta; Irribarria eta

Binakakoa. 1. jardunaldia

Ezkurdia-Merino II.a / Artola-Albiisu (ostiralean, 22:00etan, Zestoan. ETB1)
Olazol II.a-Untoria / Bengoetxea VI.a-Larunbe (larunbatean, 17:45ean, Lizarran)
Irribarria-Rezusta / Elezkano II.a-Zabaleta (igandean, 17:00etan, Zumarragan. ETB1)
Urrutikoetxea-Beroiz / Altuna III.a-Barriola (asteartean, 17:00etan, Tolosan. ETB1)

Rezustaren kontra aritu beharko dute. Txapelketa luze, zaila eta estua dute aurretik guztiek, finala apirilaren 9rako aurreikusita baitago.

Herri kirolak

Olaztik hartuko du 2016ko Sakanako Herri Kirol Jardunaldia



Aurreko urtean Hiriberrin ospatu zen Sakanako Herri Kirol Jardunaldia.

Abenduaren 11n, igandearekin, 12:00etan, Olaztik pilotalekuan

Urtea behar bezala despeditzeko Sakanako Herri Kirol Jardunaldian bilduko dira herri kirolatan dabil-tzan sakandarrak. Olaztikon fron-

toian ospatuko da herri kirolarien festa, abenduaren 11n, igandearekin, 12:00etan. Sakanako Mankomunitateak antolatzen du ekitaldia, Sakanako herri kirolarien eta Olaztikon Udalaren laguntzarekin.

Triatloia

Gomez, imaztarrak, Razkin eta Lakuntza sarituak Triatloi Galan



Nafarroako Triatloi Galan sarituetako batzuk. UTZITAKOIA

Larunbatean Nafarroako Triatloi Federazioak 2016ko Nafarroako Duatloi eta Triatloi Zirkuituetako sariak banatu zituen Iruñeko Zentral aretoan.

Sakana Triatloi Taldeko Fran-

cisco Javier Gomez altsasuarrek saria jaso zuen helduen mailan. Bestalde, Nafar Kirol Jolasetan, Ekain Imaz, Alain Razkin, Nahia Imaz eta Hegoi Lakuntza izan ziren sarituak.

Partaideak

Aizkora: Erakustaldia: Josu Agirre, Mikel Agirre, David Amillano, Hodei Mazkian, Joan Flores, Abel Uria, Julen Paniagua eta Iker Gorriti. Nor baino nor: Goizeder Beltza - Juanjo Erdozia. Hiru belaunaldi elkarlanean: Juanito, Juanjo eta Jon Erdozia. Gaztetxoak: Josu Jaka-Oihan Mariñelarena / Jon Erdozia-Aritz Oiarbide. **Sokatira eta trontza:** Andra Mari eta Iñigo Aritzako taldeak. **Harri-jasotzea:** Albaro Zugarondo, Jon Irañeta eta Iñaki Ibero. Zugarondo 125 kiloko kubiokoarekin 5 minutuko txandan marka pertsonala egin nahi du. **Taila:** Mikel Lasartek motozerra-ekin egurra tailatuko du.

Areto futbola

Magna Gurpeak Palma Futsal liderra izango du gaur arerio

Ostiralean, denboraldi honetako partidari jendetsuenean -2.350 zale bildu ziren Anaitasunan-, Magna Gurpea Xotak 5 eta 1 irabazi zion Levanteri, hori bai, ederki sufrituta. Nabarmen-tzeko da errotazioa kegitako orduan Victorren eta Martelen bajak izugarri nabaritzen ari dela talde berdea. Palma Futsal da lehen mailako liderra (19 puntu). Imanol Arregiren mutilak zazpigarrenak dira (15 puntu). Hain zuzen ere, Palma Futsal liderraren kontra jokatu du talde berdeak gaur Mallorcan.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

11. JARDUNALDIA

AIBARES 1 - LAGUN ARTEA 4
AMIGO 2 - ETXARRI ARANATZ 1
 Oibarretik garaipen potoloarekin itzuli ziren lakuntzarrek. Aibares aurreratu zen, baina Lagun Artea izan zen partidari buelta eman ziona. Anderri, Garikoitzi, Iñakiri eta Odoni esker 1 eta 4 irabazi zuten txuriek. Aldiz, Mutiloatik punturik gabe etorri ziren etxarriarrak. Amigó eta Etxarri pare pare ibili ziren, lehia oso borrokatu. Amigó 2 eta 0 aurreratu zen, eta nahiz eta Saezek Etxarri partidaren berriz sartu, markagailua ez zen gehiago mugitu.

Sailkapena >>

1. Bidezarra	24 p
4. Lagun Artea	20 p
13. Etxarri Aranatz	11 p

Abenduaren 10-11ko jardunaldia

LAGUN ARTEA - AMIGÓ
ETXARRI ARANATZ - URROZTARRA

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

10. JARDUNALDIA

AMAIA 2 - ALTSASU 0
 Amaia kontra sendo hasi zen Altsasu, eta hori ikusita, presionatzen saiatu zen Amaia. Horrela, Pastorrek Amaia aurreratu zuen. 2. zatian Altsasu saiatu zen, baina Amaiak bigarrena sartu zuen eta horrela despeditu zen partida.

Sailkapena >>

1. San Jorge	24 p
6. Altsasu	11 p

Abenduaren 10-11ko jardunaldia

ALTSASU - AUERRERA

EMAKUMEZKOEN SENIOR MAILA

10. JARDUNALDIA

ALTSASUK atsedean jardunaldia zuen.

Sailkapena >>

1. Osasuna Fundazioa	25 p
14. Altsasu	3 p

Hurrengo jardunaldia (abenduak 10-11)

ALTSASU - BERIAINGO IRUNTXIKI

ELOMENDIKO TXAPELKETA

11. JARDUNALDIA

MODERNILLO 0 - ZALDUA 2

Sailkapena >>

1. Unziti	25 p
5. Zaldua	17 p

Futbola / areto futbola

Sakanako Futbol Topaketak: kimuen 5. jardunaldia etzi

Benjaminen 3. jardunaldia Urdiainen jokatu da, abenduaren 11n

Sakanako Futbol Topaketetan, igandean kimuen mailako 5. futbol jardunaldia jokatu da Altsasun, Urdiainen eta Etxarri. Aldiz, benjaminen 3. areto futbol jardunaldia izanendute jokoan abenduaren 11n, Urdiainen.

Sakanako Futbol Topaketak

Kimuen 5. jardunaldia, igandean: 10:00etan: Kaixo - Lagun Artea (Dantzalekun)
12:00etan: Urdiain - Sutegi (Urdiain)
12:30ean: Etxarri Aranatz - Tipi Tapa (Etxarri Aranatz)

Benjaminen 3. jardunaldia, abenduaren 11n, Urdiainen:
10:00etan: Urdiain - Txartel
10:50ean: Sutegi - Seguros Sayas
11:40ean: Lagun Artea - Etxarri
12:30ean: Mediolanum - Lagun Artea A

Eskalada

Gorka Karapeto eskalatzailearen hitzaldia Lakuntzan

Gaur, ostiralean, 20:00etan, Lakuntzako kultur etxean

Lakuntzako Zabalarte Mendi Elkartek gonbidatuta, Gorka Karapeto Arrue eskalatzaile eza-guna Lakuntzan izanen da gaur, 20:00etan, Lakuntzako kultur etxean. "Hatzak estuturik" izenburupean, bere ibilbideari buruzko hitzaldia eskainiko du Euskal Herriko eskaladako erreferentziatiko bat den eskalatzaile azpeitiarrak. Karapetok haitzetan eskalatzeari gustuko du bereziki, eta 9a mailako bideak eginak ditu.

Kiroldegia

Jesus Senarrek domina jantzi du

Nafarroako Gobernuak asteazkenean banatu zituen Kirol Merituari Zilarrezko Dominak. Domina hauekin 25 urte baino gehiagotan makina bat nafarrek Nafarroan kirola sustatzeko egindako ahalegina saritu nahi da. Aurten 23 domina banatu ziren eta horietako bat Jesus Senar Aristorenak jaso zuen. Unanuarra jaiotzez baina Altsasura ezkondua, Jesusek makina bat urte eman ditu Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan herri kirolak, pilota eta xakea sustatzen eta Altsasuko Pilotajauku klubean pilota sustatzen.

Kirol Merituari Zilarrezko domina



Uxue Barkos presidentek zorionik beroenak eman zizkien saritutakoei eta euren lanak "gizarte hobea, batuagoa" sortzen duela nabarmendu zuen, "egun, oso zaila dena".

Pilota

Lopez de Sabandori merezitako omenaldia

Olaiztikoa Sutegi klubak antolatutako omenaldian Abel Barriolak txapela eta oroigarria eskaini zizkion urte luzez Olaiztikoa pilota irakasle izandakoari

Larunbatean Olaiztikoa Sutegi klubak merezitako omenaldia egin zion 16-17 urte inguru euren pilota irakasle izandako Ricardo Lopez de Sabandori. Aurten Olaiztikoa ardura utzi zuen eta Floren Aiestaran etxarriarrak hartu du Olaiztikoa Sutegi pilota eskolako irakasle izateko lana. Hamabost ikasle inguru trebatzen ditu. Baina, nolahi ere, astero-astero Olaiztikoa pasatzen segitzen du Lopez de Sabandok, Sutegi klubaren nondik norakoak jarraitzen eta beharrezkoa denean laguntza ematera, eta pilota sustatzen jarraitzen du. Iñigo Arizta ikastolan oraindik ere txikiak pilotan trebatzen baititu.

Lopez de Sabandok arrastohandia utzi du eta Olaiztikoa Sutegi pilota eskolako gurasoek eta Olaiztikoa Udalak bere aldeko omenaldia anto-



Omenduak eta antolatzaileek, guztiek batera atera zuten argazkia. UTZITAKOIA

latu zuten larunbatean Olaiztikoa pilotalekuan. Lehenik eta behin, Iturmendiko dantzarien emanaldia izan zen. Ondoren, Ricardo Lopez de Sabando omendu zuten. Sutegikoek txapela jantzi zioten eta, ondoren, Abel Barriola pilotariak oroigarria eman zion. "Hunkituta zegoen Ricardo, oso eskertuta; hainbeste ez zuela merezi zioen behin eta berriz. Baina hori eta askoz ere gehiago merezi du" adierazi digute Sutegikoek. Halaber, Lopez de

Sabandoren laguntzaile eta lagun Mikel Agirreri eta Migel Martinez de Goñiri ere trofeoa eman zieten, Ricardorekin batera lan handia egin baitute klubean.

Ondoren, pilota partida eskaini zuten Ricardorekin trebatutako pilotariak. Zornozak eta Agirrerek Flores eta Beunza izan zituzten aurkari. Bukatzerakoan ia 80 pertsona bildu ziren bazkaltzera, Clinker jatetxean. Primerako giroan omendu zuten maisua.

Txirrindularitza



Herriko txirrindulari eta lagunari aitortza

Pablo Urtasun omendu zuten larunbatean Urdiainen

Pablo Urtasun urdiaindarrak bizikleta zintzilikatzea erabaki du. Txirrindulari lanetan egindako ibilbidea aitortzeko omenaldia antolatu zioten herritarrek eta lagunak, larunbatean, Urdiaingo Aitziber elkartearen. 100 lagun inguru bildu ziren bazkarian eta, lagun errekonozimenduz gain, opari bikainak jaso zituen Urtasunek, tartean besoak altxatuta garaipena ospatzen ari zen irudi zoragarri bat, eta egon den talde guztien maillotak bilduta osatutako koadro erraldoia, besteak beste.

Xakea

Xakearekin urteroko zita Sakanan

XVII. Sakanako Xake Txapelketa abenduaren 10ean jokatu da Urdiaingo herriaren etxean, 10:00etatik aurrera

Gabonen aurretik jokatu da, urtero, Sakanako Xake Txapelketa. Aurten XVII. edizioa izango du Mankex Zaldi Beltza Xake Taldearen eta Urdiaingo Udalen laguntzarekin antolatzen duen txapelketa. Abenduaren 10ean, larunbatean, goizeko 10:00etan Urdiaingo herriaren etxean jokatu da, eta Sakanako Xake Txapelketa izateaz gain, Nafarroako Txapelketa izango da 1.800 ELO puntutik behera. 20 minutuko 8 partidatarako jokatu da txapelketa. Helduen mailako lehen zortziek saria jasoko dute eta gaztetxoek mailan, aldiz, lehenengo hiru onenek.

IZENA EMATEKO

Egunean bertan, 9:30ean, Urdiaingo herriaren etxean. Prezioa: 5 euro.

Atletismoa

Barricartek erabakiko du Sakanako Kopa

Zubeztia elkarteak antolatutako 36. Oinezko lasterketa edo 33. Alberto Barricarte memoriale abenduaren 8an jokatu da, Ama Birjinaren egunean, ostegunarekin, 11:30ean

Altsasuko Zubeztia elkarteak Udalen laguntzarekin antolatutako Oinezkoen Herri Lasterketak 36. edizioa beteko du aurten eta 33. urtea izango da aipatu lasterketak Alberto Barricarte memoriale izen hartuzuela. Proba herriko hau, ohi denez, abenduaren 8an jokatu da, Ama Birjinaren egunean, ostegunarekin, 11:30ean hasita.

12,2 km

Zubeztia elkarteak herriaren barne antolatutako zirkuituari lau buelta eman beharko dizkiete korrikariak, guztira 12,2 km. Goizeko 11:30ean abiatuko da lasterketa, Zubeztia elkartearen albotik.

Aurreko urtean 142 korrikalari hartu zuten parte proban, eta



Korrikalariendako zita berezia da Altsasuko abenduaren 8koa.

Antonio Etxeberria iruindarrak (39:17) eta Izaskun Beunza olaiztiarrak (48:22) irabazi zuten.

Izena emateko

Izena ematea dohainik da. Aurretik www.dantzalekusakana.com web gunean egin daiteke edo egunean bertan, lasterketa baino lehen, 10:00etatik 11:30era, Gure Etxean. 18 urtetik gorakoek eman dezakete izena. Bukarera Zubez-

tia elkarteak hartuko du sari ematea, eta bildutako guztiendako auzate ederra izanen da.

Sakanako atletismo kopako azken lasterketa

Altsasukoarekin 2016ko Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sariari bukaera emango zaio. Emakumezkoetan Ginesa Lopez altsasuarra doa buruan, eta, gizonezkoetan, Raul Audikana da lehena.

Non erabili

T. IRIARTE

IRURTZUN

50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

NUEVA IMAGEN

ALTSASU

%10eko deskontua.

ARRUAZUKO OSTATUA

ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

LOGURE

ALTSASU

Bandalux 59,00€/m² (eskaintza berezietan izan ezik).

ML MODA

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10 €tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

NEREA ILEAPAINDEGIA

LAKUNTZA

Garbitu, moztu eta apaindu 26 €.

MARTXUETA

IRURTZUN

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

REDIN LURRINDEGIA ETA KOSMETIKA

ALTSASU

%5eko deskontua osagarrietan.

LIZARDI ESTETIKA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua depilazioetan.

HOSTO GORRI ALTZARIAK

ETXARRI ARANATZ

Dendako produktuetan %5eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

BI IRAKURLE TALDEEN HITZORDUAK:
Etxarriko taldea Unai Elorriagaren *Iazko hezurak* liburuaz hizketatzeko abenduaren 15ean, 19:00etan, elkartuko dira liburu-

rutegian. Olatzagutikoa, berriz, Elvira Lindoren *Una palabra tuya* liburuaz ariko da abenduaren 16an, 21:00etan, liburutegian.

Irakurketa kanpaina Etxarrin

Etxarri Aranazko Udaleko Liburutegi Batzordeak aurtentzen ere Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) kanpaina martxan jarri du. Bi helburu ditu kanpainak, alde batetik, euskaraz irakurriko duten irakurle gazte eta heldu berriak erakarri nahi ditu eta, bestetik, ohiko irakurle euskaldun saritu. Antolatzaileen esanetan "kanpaina honetan irakurle guztiak dira irabazle: euskarazko irakurleak, liburutegiko irakurleak,

eta herriko liburu-dendak".

Azaroaren 15etik ilbeltzaren 31era bitartean martxan da kanpaina. Victoriano Huizi udal liburutegitik pasa eta euskarazko liburu bat maileguan hartzen dutenek, hura irakurri ondoren, bueltatzean, fitxa bat bete beharko dute liburutegian. Irakurritako lanaren inguruko iritzia labur ematea eskatzen da. Hura beteta, trukean, liburuazainak deskontu txartel bat emanen dio, herriko liburu-

Zozketa

Kanpainako parte-hartzaileek Kaxeta liburu-dendan 30 euroko 4 sariren zozketan parte hartuko dute. Sariak euskaraz argitaratutako liburuak erosteko erabiliko dira.

dendan liburu bat erosteko.

Deskontuak

Kanpainan parte-hartzen dutenek, orokorrean liburuak erosteko %25eko deskontua eskuratuko dute. Kopuru hori %50ekoa da eus-



kara ikasleen eta Mintzakideko kideen kasuan. Bestetik, irakurle taldekoendako deskontua

%40koa izanen da. Deskontuak, jakina, euskarazko literatura lanei ezarriko zaizkie.

Aldaz Iruñean dantzari

Nafarroako Dantza Garaikidearen Jaialdia (DNA) herenegun despeditu zen. Haren barruan mugimenduaren hizkuntza desberdinak ikertu eta giza gorputzaren adierazpen aukerak esploratzen dituzten nafar dantzarien lana ere erakutsi nahi du jaialdiak. Azken proiektuak eta dantzako bakartsaioak aurkeztu dituzte. Haien artean Laida Aldaz etxarriar dago, Helena Lizariarekin eta Ger-

man de La Rivarekin batera *Kirolak* koreografia eskainiko du.

Helena Lizariaren kontzeptu batetik abiatuta sortutako koreografia da, euskal kirolak abiapuntu dituenak. Kirol horiek lehia-kortasunak, trebetasunak, iaioitasunak, erronkak, indarrak, iraunkortasunak markatuta daude. Pieza hau aldi berean gogoezko eta erraietiko da. Hausnarketa piztu nahi du umore fisikoaren eta zentzugabearen bidez.



Kirol horietatik abiatuta beren artean harremanak dituzten per-

tsionaiak sortzen dira, egoera dramatikoak edo umorezkoak sortuz.

Eneko Aritzaren istorioa komikian



Kondairak dioenez Urdiaingo eta Altsasuko San Pedrozelain izendatu zuten errege Eneko Aritza. Nabarralde fundazioak argitaratu du Iruñeko erresumako lehen erregearen istorioa jasotzen duen komikia: *Eneko Aritza, lehen errege baskoia*. Angel Rekalde Nabarraldeko zuzendaria izan da gidoilaria eta Joseba Larretzek, Joseviskyk, egin dituzte irudiak. Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu da komikia.

Rekaldek gogorarazi duenez, "herriak koroatu zuen errege eta horrela hasi zen Iruñeko Erreinuaren -Nafarroaren- ibilbidea, euskaldunek antolatutako Estatuarena, alegia. Mendeetan zehar bisigodo, franko eta arabiarren erasoak jasan ondoren, baskoiek beren lurralde defendatzeko erresuma eratzea erabaki zuten, zortzi mendez luzatuko zen Iruñeko eta Nafarroako errege dinastiei hasiera emanez".

Saria Motxila 21en filmari

Iñaki Alforjak zuzendutako *MOTXILA 21 London tour: Getting down in London* dokumentala Collado Villalbako 9. Degaitasunari buruzko Nazioarteko Zinema Jaialdiko film onenaren saria jaso du. 45 film lehiatu ziren. Nafarroako Down Sindromea Elkartearen abaroen sortutako Motxila 21 musika taldeak 2013ko agorrilean Londonen bira egin zuen. Musikari ingeles autistek osatutako The Autistix taldearekin batera kontzertuak eman zituzten. Bost egunez musikaz eta laguntasunaz gozatzeko aukera



izan zuten Motxila 21 taldeko kideek, tartean Aintzane (saxofoia) eta Ainhoa Lizarraga (akordeoia) dorrobarrak. Aniztasuna,

errespetua, laguntasuna, sormena, rocka, musika, baina batez ere pertsonak dituzten hizpide road movie erako filmak.

Etxarriko abesbatza Sari Nazionalen

Abesbatzen Sari Nazionala Zumarragan jokatu da abenduaren 10ean eta 11n. Lau abesbatzek parte hartuko dute bertan eta haien artean dago Etxarri Aranazko abesbatza.

Bestetik, Nafarroako eguna dela eta lau kontzertu izanen dira Sakanan: Irurtzungo elizan Gaztelu Otxotea ariko da; Lizarragako elizan Etxarriko abesbatza; Altsasuko Iortia kultur gunean Erkudengo Ama abesbatza eta, azkenik, Olatzagutiko jubilatuek elkartean Paz de Ziganda Helduen Abesbatza. 13:00etan hasiko dira.

ALBUM

Abenduak 23, ostirala,
17:00etatik 19:00etara,
Iortia kultur gunean

ILUSTRATUAK
SORTZEKO TAILERRA

Antolatzailea: **Mank**

Laguntzailea:



Altsasuko Udala

Tailergileak:
Yolanda Anrieta
Aitziber Alonso

6-10 urte bitarteko haurren (LHI-4)
izen-ematea Iortia kultur gunean hilaren 18ra arte
(948 564 255 iortia@altsasu.net)

Altsasuko historia-memoria herriko sortzaileen ispiluan

Gaurtik 18ra astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean

Altsasuko sortzaileak herriko historia-memoria gaitzartuta erakusketasortudute: *Oroimenart*. Altsasu Memoria taldeak sustatutako erakusketa da. Iosu Imaz taldekideak azaldu digunez, margolari eta eskultore altsasuarren lanak izan dira ikusgai. Lan batzuk erakusketarako propio sortutakoak izan dira. Imazek azaldu digunez, "obraren

bat bukatu gabe erakutsiko da, herrian azken asteetan bizitakoak ez baitu asko lagundu".

Altsasu Memoria taldeak antolatzen duen hirugarren erakusketa da. Imazek azaldu digunez, "gure historia modu bisual baten bidez erakusteko asmoz antolatzen ditugu erakusketak". Aurreratu digunez, gaur mustuko den erakusketa herriko sortzaileekin antolatu nahi dituzten lau ekimenetatik lehena da. Aurrerago, herriko historia zinemaren, musikaren eta



antropologiaren ikuspuntutik lantzeko asmoa dute.

Taldea

Altsasuko historia osatu eta berre-raikitze asmoz lanean dabilta.

"Historia ofizialaren bazterrean, ezpondetan zokoratuak izan diren protagonista eta gertakariei bide eta leku egiteko". Ildo horri segituz, orain arte Altsasuko historia- ren bi eperen berri eman dute,

aurreneko datuetatik 1950era artekoa izan zen lehena eta 1950 eta 1992 artekoa bestea. Imazek aurreratu digunez, hirugarren zatia (1992-gaur egun) heldu den urterako prest izan nahiko lukete.

Heroiak heroi

Larunbatean, 20:00etan, Olatzagutiko kultur etxean

Egoitza bat eta hiru protagonista. Ez edonolakoak, ez egoitza: adinduendako soldaduendako; ez protagonistak: gerrako hiru beterano. Enrique herrena da, Gustavok agorafobia du eta Felipe maiz zorabiatzen da, buruan daukan metraila puska bat duela. Gerrako zauriak. Adinduen egoitzan bizitzaren joanari begira daude. Eta erabakia hartu dute, egoitzatik ihes egiten dute. Nora,

ordea? Indotxinara, ondoko herri- ra edo mendi tontor batera, lertxunen artean haizea dabilen toki batera?

Hitz-jario biziak aspaldi ahaztutako kanpaina militarrek gogorazteko, hitz-aspertuak, bizitzari buruzko hausnarketak... den dena irribarre eta barre algaraz hornitua. Ramon Agirre euskarara ekarri du Gérald Sybleyras antzerkigile frantsesaren *Le vent des peupliers* (*Haizea lertxunetan*) antzezlanak, *Heroiak*. Antzezlanak lau izendapen izan zituen Molière sarietan eta



ingelesezko moldaketak, Tom Stoppardek eginak, komedia onenaren Laurence Olivier saria irabazizuen 2006an. Begoña Bilbao Lejarzeginen

zuzendaritzapean, Joxe Ramon Soroz, Kandido Uranga eta Ramon Agirre aktoreek jokatzeko dituzte hiru "heroi" horiek.

Kantu xarmangarrien sorta

Abenduaren 10ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean

Trasteando taldeak 11. aldiz eguberrien aurreko kontzertua eskainiko du. *Cantos con encanto* kantaldiarekin musikari altsasuarrek atzoko, gaurko eta betiko kantuak, hangoak eta hemengoak, abestuko dituzte. Trasteandok musikaren bidez jendea entretenu nahi du. Sarrera Acción contra el Hambre rendako da.

Bukatu dira Euskal Kantu Jaialdiak



Sei urte ospatu gabe egon ondoren aurten bueltatu dira Nafarroako Euskal Kantu Jaialdiak. Tafallan izan zen azken saioarekin despeditu zen aurten-go edizioa, larunbatean. Josune

Razkin eta Andoni Gastaminza uhartearrak, Ariane eta Munia lakuntzarrak eta Ainhoa eta Itxasne Mundiñano ahizpak han izan ziren.

• www.guaixe.eus

Sardui idazlearen txanda

Abenduaren 15ean, ostegunetan, 10:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean

Irailean musikari gisa erabili zuen egoitzara idazle moduan bueltatu da Alex Sardui. Bere aurreneko eleberria den *Esan eta egin* (2013, Baga Biga) liburuaren inguruko literatura solasaldian parte hartuko du gernikarrak. 1950eko eta 1960ko hamarkadetan kokatutako nobelak lau umeren istorioa kontatzen du, umetatik nagusi egiten diren arte. Nagusi egitean, negoziotan murgiltzen hasten dira, eta zenbait enpresa



sortzen dituzte; beti laurak batera. Kuadrilla hitzak haiendako zer esan nahi duen aurkituko du irakurleak liburuan. Guztia modu irakurterazean idatzia.

Mank-ko Euskara Zerbitzuak eta AEK-ko Itsasi euskaltegiak eta Sakanako Mintzakidek antolatu dute saioa. Liburua irakurrita joan behar da.

Uriberen eguberri bola

Zortzigarrenez Iruñerriko Itaroa merkataritza guneak eguberri bola erraldoiak dekoratzeko lehiaketa antolatu du. Bola horiek margotu eta gunearen eguberri dekorazioaren zati izan dira. 10 bolak dekoratzeko 50 proposamen jaso zituzten eta epaimahaiak 10 finalista aukeratu ditu. Haien artean dago Iker Uribe-etxeberria lakuntzarra. Bigarren aldida da lakuntzarra lehiaketa horretako finalera pasa dena. 2014koan, bigarren saria eskuratu zuen.



BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

JAVIER ZELAIA

**Pintura eta igeltsua
Zaharberritzeak eta obra berria
Barneko dekorazioa
Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe**

648 143 615 • Altsasu

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: %10	euria: %10	euria: %10	euria: %20	euria: %15	euria: %10	euria: %15
Min: 3 Max: 12	Min: 4 Max: 15	Min: 5 Max: 10	Min: 6 Max: 10	Min: 6 Max: 11	Min: 4 Max: 11	Min: 5 Max: 10

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	16.5	1	2.2
Etxarri A.	16.5	-1.6	2.6
Altsasu	14.5	-1	0.8
Aralar	7.4	-2	4.9
Urbasa	7.5	-2	7.2

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
7	14	21	29

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide sarituak

JAUME GELABERT GONZALEZ (ANTSOAIN)

AIORA BARANDIARAN ARRESE (ARBIZU)

ERKUDEN RAMOS GONZALEZ (ALTSASU)

EGOITZ LOPETEGI LOPEZ (LAKUNTZA)

ABENDURAKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2., 3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

>> 11 galdera

Ana Balda San Juan

Aizpea, Irurtzongo euskaltzaileen topaguneko kidea

Testua: Alfredo Alvaro Igoa



GUAIXE FUNDAZIOA MECNA PROIEKTUA

BERRESKURATU

%80

-ra arte

ERRENTA AITORPENEAN

GUAIXERI EMANDAKO diruaren zati handi bat itzuliko zaizu

Milesker zure babesagatik!

1. Nafarroako egunarekin batera, Pirritx, Porrotx eta Marimotots Irurtzunerara bueltan, ezta?

Urtero bezala, bai. Beti oso ongi ateratzen da, kiroldegia betetzen da. Ustedut Nafarroan urtero Irurtzunen mustutzen dutela; edo lehenbizi Iruñean eta gero hemen. Oso polita iruditzen zaigu. *Tipi-tapa, Korrika!* izenburua du lan berriak. Larunbatean izanen da, 17:00etan. Horrela abiatzen ditugu Euskal Ekitaldiak. Asteartean urteroko txangoa dugu.

2. Zein da astearterako plana?

Atarrabiako batanera, ur biltegi-ra joanen gara. Oso bitxia da. Atarrabiarantz 10:00etan aterako gara. Gero bazkaldu eta etxera buelta 18:30ean egingen dugu. Autobusa betetzeko oso gutxi falta da eta ize-na eman daiteke.

3. Euskal Ekitaldietan beste klasiko bat bertso afaria da.

Bai, gero eta indar gehiago hartzen ari da. Azkeneko urteetan gazte-ak afarira etortzen hasi dira eta giro polita sortzen da. Oihana Iguaran eta Eneko Lazkoz ariko dira, abenduaren 16an, Iratxon. Eneko sakandarra da; gizon bat eta emakume bat dira; pixka bat erakusteko ere emakumeak bertsotan ere aritzen direla. Txartelak Pikuxarren eskuratu daitezke.

4. Musikarendako tartea heldu den ostiralerako iragarri duzue.

Abenduaren 9an, bai, 23:00etan Pikuxarren. Gure asmoetako bat gazteagoengana iristea da eta Gazte Asanbladan eta ibiltzen direnei proposatu genien haiek egitaraua

osatzeko antzerki edo kontzerturen bat proposatzeko. Beraiek ere gerturatzeko eta gustura egoteko. Txalainak bikotea proposatu zigiten. Hertzainak taldearen bertsioak egiten dituzte. Kontzertua baino lehen pizzak eta bokatak salgai egongo dira Pikuxarren.

5. Zer dira aipatu ditugun Euskal Ekitaldiak?

Euskal Ekitaldiak dira abenduan, egun gutxitan, herrian euskara bulkatzeko eta euskara ikusteko egiten diren ekitaldiak. Egun hauetan euskaldunon bilgunea izateko. Dena den, talde bezala, saiatzen gara urte osoan euskara ikustarazten. Aurreko zuzendaritzak egoki jo zuen abenduan pilotzea eta ez dugu aldatu. Adin tarte guztiak hartzeko ahalegina egiten dugu.

6. Euskal Ekitaldiak, noiztik?

Harrapatu nauzu. 20 urte behintzat izanen dira. Momentuz, aguantatzen dugun bitartean jarraitzeko asmoarekin gaude. Zeren arrakastatsuak izaten dira, bai.

7. Gauza gehiago antolatzen dituzue Aizpeak, ezta?

Joan den urtean, Trinitate festetan euskarak halako presentziarik ez zenez, plazan bertan kirola euskarak egitea erabaki genuen. Joan den urtean plazan spinninga euskarak egin genuen, aurrean zunba eta jolasak plazan bertan, herriaren erdian euskara entzuteko.

Mintzakiderek eta AEKekin batera, hilabetean edo bi hilabetean behin, Mintzakide Familiaran ekimenarekin igande goiz batean familiarekin ekintza bat egiten

da: mendi irteera, ginkana, jolasak... Guraso euskaldunak edo euskalduntzen ari direnak, umeekin. Familien artean ere euskarak egiteko ohitura finkatzeko. Eta Irurtzun Telebistakoekin ere harremanetan gaude, laguntzen diegu eta haiekin ere urtean zehar zenbait ekintza antolatzen ditugu. Ateratzen dena.

9. Zer moduzko osasuna du Aizpeak?

Orain gogotsu gabilta. Duela bi urte denak berriak sartu ginen. Indargunea da oso ezagunak gara, antzeko adineko umeak ditugu eta antzeko asmo eta beharrak. Momentuz gustura gabilta. Ateak zabalik ditugu edozein proposamen egiteko. Edo juntakide izateko. Edozertarako.

10. Zein da euskarak Irurtzunen duen osasuna?

Nire inguruan euskarak gero eta indar gehiago dauka, baina, orokorrean, leku gehienetan bezala erabileraren gure erronka da. Eskolako %60 D ereduan matrikulatua dago, baina erabileran hori ez da hainbeste nabaritzen, nahiz eta orain plazan, parkean asko entzun euskara. Umeen eta gaztekoen erabileran egin behar da indarra. Gazteek gazte asanbladarekin mugimendua sortu dute, gogo dago. Gogo dagoen lekuan errazago da saiatzea.

11. Zer esanen diegu irakurleei?

Euskarak hitz egin nahi badute eta Irurtzun euskalduna ezagutu nahi badute, lasai asko etortzeko. Irurtzun ere euskalduna da.